

# ARGIA

**“Hizkuntza  
arduraz  
apurtzen  
ahalegindu  
naiz”**

MIREN AMURIZA

46-49. orrialdeak

# 2.902 | 2025 / 01 / 26 | 4,00 €



**Apurketaren  
beldurrak  
bizirik dirau**

26 | ESAKO URTEGIA



**Publiko beharko  
litzatekeena  
elkarte denean**

32 | LABORANTZA GANBERA



**LARRUN #303**  
Armagintza moldatu  
gizartea eraldatzeko



# Abentura erraldoia

Salba dezagun kalejira

Gorka Bereziartua eta Adur



Ipuina **12€**

+ Bidalketa gastuak

azoka.argia.eus (+34) 943 37 15 45

## Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU


 AZALEKO ARGAZKIA: **DANI BLANCO / ARGIA CC-BY-SA**

## Iritziak

- 22 | KARMELO LANDA
- 23 | SUKAR HORIA
- 23 | ITXARO BORDA
- 24 | ANE ABLANEDO
- 25 | INMA ERREA

## Finkoak

- 40 | ARGIA KOMUNITATEA
- 41 | DENBORAREN MAKINA
- 42 | BIZI BARATZEA
- 50 | DENBORA-PASAK
- 51 | KULTUR-KRITIKAK
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU

 GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: **CLIPART COURTESY FCIT**


ZALDI ERO / ARGIA CC BY-SA

### 16 | **ANTON MENDIZABAL**

35 urtez ARGIA Sarietako garaikurrak egin dituen eskulturgilea elkarriketatu du Miel A. Elustondok. Bere ibilbidearen erreposoa egin digun bitartean, hamaika gai, giro, izen bistarazi dizkigu.

## Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

### “Ez ezazula memoria gal, zure auzoa ere Gamonal”

Urko Apaolaza

26 | IINGURUMENA | ESA URTEGIA

### Apurketaren mamua beti hor

Xabier Letona

32 | ELIKADURA

### EHLGk hogeitun urte beteko dituela, egitura publikorik ez zerumugan

Jenofa Berhokoirgoin

38 | HIZKUNTZA GUTXITUAK

### Erizain indigenek herri zapalduentzat ekitatezko osasun zerbitzua aldarrikatu dute

Onintza Irureta

46 | KULTURA | MIREN AMURIZA

### “Kanpokoak hain argi identifikatzen eta salatzen genituen bitartean, barkaberak izan gara etxeokoen”

Leire Vargas

#### Jabetza

Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

#### Erredakzioa

Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Peñagarikano, Jenofa Berhokoirgoin, Jon Torner, Julene Flamarique, Lander Arbelaitz, Leire Artola, Leire Ibar, Manex Moreno, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

#### Diseinua

Maitane Gartzandiandia

#### Argazkilaria

Dani Blanco

#### Produkzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

#### Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

#### Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

#### Banaketa

Olatz Korta

#### Azoka

Mikel Olabide

#### Idazkaritza

Ane Gaztelumendi, Aloña Soraluze, Bego Zuzar

#### Web garapena

Asier Iturralde

#### Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

**Lege gordailua:** SS 837-2012

**ISSN:** 0213-909X

**Batzorde parekidea:** 72562 E

#### GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

#### Posta elektronikoa

 komertzial@argia.eus  
 komunitatea@argia.eus

#### Telefonoa

943371545

#### Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

#### Nafarroa

 Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,  
 31001 Iruñea

Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:





## Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaltu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.



Lizentzia hau baliagarria da testuentzat eta, argazkien eta ilustrazioen kasuan, ARGIAren sinadura daramatenentzat soilik.

 ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO  
 SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

 KULTURA ETA HIZKUNTZA  
 POLITIKA SAILA

**Gobierno de Navarra**  **Nafarroako Gobernua**


 Ekoedizioaren Institutuko  
 bazkide da ARGIA


**OLATUKOOP**

 Ekonomia sozial eraldatzailearen  
 sareko kide gara

# 3.700 arrazoi

Espainiako Estatua da pertsona gehien bide bazterretan botata dituen herrialdeetako bat munduan. Faxismoaren atzaparren ondorio horiez hemen badakigu zerbait. Gutxienez 3.700 nafar hil eta 30.000tik gora errepresaliatu zituzten frankistek 36ko estatu kolpearen ostean. Min hori ez da sendatu, bertoko nazien ondorengoak horretaz arduratu direlako. Beraz, 80 urte baino gehiagoz zure hiriaren erdigunean Europan dagoen monumentu faxistarik handiena edukitzeak askorengan eragiten duena ezin da adieraberritu, eraikinari milaka biktimetako baten izena jarrita ere. Faxismoak bere burua betikotzeko eraiki zuen monumentua. Hamarkadak pasa dira eta faxismoak hortxe dirau. Trump, Netanyahu, Le Pen, Abascal... itxura aldatuta, baina adiera berarekin.

 Iruñeko Erorien Monumentua eraistearen aldeko manifestazio jendetsua egin dute larunbatean. JAGOBA MANTEROLA / FOKU

 AXIER LOPEZ



LIBO YA!!  
SI ORAIN!!

# Mario Lópezen aurkako epaiketa, epaiaren zain

**LEIRE IBAR**

**G**ernikako saskibaloitako taldeko entrenatzaile ohiaren aurkako epaiketa egin da Bizkaiko Auzitegian. Fiskaltzak 14 urteko espetxe zigorra eta hamar urtez biktima bizi den herrira ez joatea eskatu du. Akusazio partikularrak, berriz, 18 urteko kartzela zigorra eskatu du, eta 150.000 euroko kalte-ordaina eragindako kalte moral eta sozialengatik.

Hiru egun iraun ditu epaiketak eta epaiketa guztia atekatu itxita egin dute, emakumearen identitatea babesteko, salatzaileak horrela eskatuta. Horrez gain, biktimak eta akusatuek ez dute elkar ikusi epaiketan. Bukaerako txostenaren aurkezpena ere atekatu itxita egin dute. Bertan, gertakarien, testigantzen zein biktimaren identitatearen aipamen zehatza egiten dela azaldu du akusazio partikularrak, eta horregatik komunikabideei atea itxi zaiela.

Mario Lópezen defentsak adierazi du entrenatzaile ohiak "kontaktu baimenduak" izan zituela salatzailearekin. Hala defendatu du auzian, eta azken egunean errepikatu du adin txikikoa-reakin "errespetuzko" eta "kariñozko" harremana zuela, "platonikoa" eta "sexurik gabea".

1998 eta 2001 bitartean egindako sexu-abusuen delitu jarraituagatik epaitu dute Gernikako entrenatzaile

ohia. Emakumeak azaldu duenez, 50 alditan baino gehiagotan gertatu ziren erasoak. Orduan 31 urte zituen akusatuek, eta 13 salatzaileak. 2023an salatu zuen biktimak, Mario Lópezek taldeko entrenatzaile gisa jarraitzen zuela. Estres posttraumatikoa diagnostikatuta, tratamendu psikologikoa behar izan du emakumeak. Auzian, bionbo batek babestuta deklaratu du, artatzen duen psikiatralagunduta.

Lópezek eta emakumeak bakarrik ez, garai hartako dozena bat taldekidek, entrenatzailek eta saskibaloitako klubeko zuzendaritza-kidek deklaratu dute, baita Arbitraje Federazioko ordezkariak eta Lópezen emazte ohiak ere.

## "ZUREKIN GAUDE"

Gernikako Sare Feministaren hitzetan, biktimak merezi du horrelako egun "garrantzitsu eta zaurgarri" batean herriaren babesa jasotzea, eta horregatik, epaiketaren lehen egunean auzitegi aurrera bertaratu dira, "justiziaren zuloen" aurrean herri-babesa erakusteko asmoz. Sareko kide Arlett Apraizek adierazpenak egin ditu Naiz irratian: "Ikusten dugu egungo sistema judicialak biktimak beriz biktimizatzen dituela, eta beharrezkoa dela haiekin egotea. Gure mezua argia da: Sinesten dizugu eta zurekin gaude". ●

# Debako liburutegiak umeak diskriminatzen ditu

**MIKEL GARCIA IDIAKEZ**

**I**rakurzaletasuna txikitatik sustatzea Debako liburutegiaren lehen-tasun nagusietako bat da", esana du herriko udalak, baina bertako debekuek ez dute halakorik islatzen. 2 urtetik beherako umeak ezin dira liburutegian egon; eta beraz, umea besoetan, motxilan edo karroan duen erabiltzaile heldua ere ezin da liburutegian egon. 2-6 urte bitarteko haurrek 16:30etik 17:30ra ez bada, gainerako ordu guztietan galarazita dute liburutegia, eta ondorioz, sarri adin ezberdineko senide eta lagunak ere ezin dira batera egon liburutegian. Pentsa, 15 urte bete arte goizez ezin dute liburutegian egon (7-9 urte artekoek 16:30etik 19:00etara dute baimendua liburutegia, 10-15 urtekoek 16:30etik 19:45era).

"Edozein adinetako umeak edozein ordutegian liburutegira joateak lortu nahi den giro lasaia eragotzi eta beste erabiltzaile batzuen beharrak asetzeko oztopatuko luke", uste du udal gobernuak. Baina zein ikuspegi dute umeen inguruan? Nola irakatsi belaunaldi (eta behar) ezberdinen arteko elkarbizitza eta errespetua, gainerakoekin elkartzeko eragozten bazaie? Gainera, irizpideak ez al luke izan behar liburuak eta liburutegia gaizki erabiltzen ari denari arreta deitzea, adinkeriaz jokatu ordez? Are ulergaitzagoak dira Debako Ostolaza udal liburutegiko neurriak (marratzea ere debekatuta dute, ikasturte osoan ez dute haiei bideratutako jardunik...), jakinda haur liburutegia duela, liburutegi orokorren barruan kristalez bereizita eta ate propioarekin. Haur liburutegiak propio liburuazaina du, egun osoko jardunarekin, nahiz eta goizez ezin duten haurrek liburutegian egon.

Debeku horiek guztiak salatzen eta aldatzeko presio egiten pare bat urte daramatza Liburutegia Denontzat herritar taldeak, baina alferrik, EAJren udal gobernuak ez du mugimendurik egin nahi, kritikatu dute. ●



# MOTZEAN

**T**rumpek AEBetako presidentetza hartu zuen eguna baliatuta, *Goazen lagunok* lelopean, multinazionalen jabetzako sare sozial "toxikoak" utzi eta fedibertsora trantsizio kolektiboa bultzatzeko kanpaina egin du eragile ugari. "Internet gizatiarrago batean sinesten dugu, monopoliorik, algoritmo inbaditzailek eta nahi ez den publizitaterik gabe", diote.

**P**olizia agenteek nortasun faltsuen pean gizarte-mugimenduetan egindako infiltrazioak Espainiako Konstituzio Auzitegira eramango dituzte kaltetuek.

**M**ikel Sánchez, 2019tik 2024ra Plangintza, Antolamendu eta Ebaluazio Sanitarioko zuzendaria izan zena, azaroan hasi zen Mutualia enpresako mediku-zuzendari gisa. 2024ko udan kargua utzi eta hiru hilabete eskasera egin zuen jauzia enpresa pribatura, Jaurlaritzaren oniritziarekin.

**E**spainiako Gobernuako Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demokratikorako Ministerioak atzera bota du Statkraft multinazionalak Araba eta Gipuzkoa artean, Eskoriatza eta Aramaio artean, eraiki nahi zuen Itsaraz parke eolikoa.

**M**ixel Aire Etxebarren 'Xalbador II' zendu da, 81 urterekin. Bere aita Fernando Aire 'Xalbador' bezalaxe, bertsolaria eta artzaina izan zen Mixel Aire.

**T**okiko espezieekin osatutako basoa landatzen ari dira Arrankudiaga-Zollon.

EZ HANKA EZ BURU

**ADUR LARREA**  
www.adurlarrea.com



ADUR

## Erosoa



ULA IRURETAGOIENA

**E**roso gaude ingurunea gure egoera fisiko/emozionalera egokitzen denean. Besteak ni kontuan hartu nauean, izan gizaki bat, objektu bat, espazio bat. Erosotasunaren klabea produktu eta espazio diseinuan beharrian handi gisa sartu da, erosotzat jotzen dena erosogarria delako portzentaje altu batean. Erosotasunaren beharra askotan kalitatearen gailentzen badu ere, balantzean irabazten ateratzen da. Eroso, aktibitate bat burutzeko esfortzu gutxi/gutxiago edo lana aurrezte/laguntzea, denbora? energia? irabazteko. Kapitalak badaki zenbat gusztatzen zaigun egunerokoa eroso egitea eta horretarako diseinuak pentsatutako eta industrializazioak ekoiztutako gailu eta materialak izango ditugu bidelagun.

Erosoa, batzuetan, erraza eta azkarra izatea esan nahi du. Janariaren diseinuan adibidez. Kaneloiak erosoak dira bandeja batean datozenean eta gure zerregina paketea ireki eta berotzen jarri behar izatea denean. Edo entsalada bat egiteko poltsa ireki eta uhaza garbi eta zurituta datorrenean eta hainbat uhaza motarekin nahasturik datorrenean. *Krist* batean afaria prest.

Erosotasunaren apologiak espazioaren mantentze eta garbiketa lanak murriztea eskatzen du. Zorua akaberan adibidez, gustu zabalduena da egurrezko zorua, eta aukera hedatuena egurraren ordezkotako egur imitazioa. Partida galdua du egurrak: material noblea izatean (horregatik gustatzen zaigu, ala?) zaindu egin behar da eta denborak eragiten dio. Lana ematen du. Egurraren itxura duen plastikozko zorua berriz, lehen egunean bezala mantenduko da, *flist* batean garbitzen da, ez du arazorik ematen, erraza da kolokatzeko, aukera asko daude, stock-a luzea da, merkea da.

Bidean zer galdu den eta zein ondorio duen gure erosotasun gurak, erosotasunagatik, ez dugu aintzat hartzen. Baina mundu oso bat erosten gaude jangarria den pakete eta egurraren ilusiozko zorua hautuetan. Epe labur eta luzeko erosotasunak bat eginda, suzedaneoen aro bat irudikatzen, garapenaren izean, sofaren alde akaso. ●



## Aroztegia: sorgin ehizari stop

ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA

**L**egez kanpo ekin zion Palacio de Arozteguia promotoraren enkarguz Tex enpresak 2021ean Lekarozko lurretan ehunka haritz ebakitzeari. Herriarrek aurre egin zieten beraien gorputza makinaren aurrean jarrita eta defendatzen ari ziren lur haietan egunak eta gauak emanda, eta obra gelditzea lortu zuten. Epaitegiek arrazoi eman zieten gerora herritar hauei, legeak arautzen duen prozedura bete gabe esleitu zion promotorak obra enpresa horri. Nafarroako Gobernuak ez zuen ezer egin tartean lur komunalak hartzen dituen proiektu horretan irregulartasunez betetako obra hori gelditzeko, eta aldiz, Polizia Forala eta Guardia Zibila etengabe aritu ziren herritarrei isunak jartzen.

Obra ilegalki abiatu zuenak ez du ekintza horiengatik inolako zigorririk jaso, dakigula behintzat. Aldiz, epaitegiek arrazoi eman dieten herritarrei orain garesti ordainarazi nahi diete, haien zigorra guztion eskarmenturako izan dadin: 20 urteko kartzela zigorra eta 56.000 euro eskatu dituzte zazpi herritarrentzat, guztira. Ehunka herritarrek gorputza eta bailara oso batek babesa jarri bazuen kanpaldi hartan, nola hautatu dituzte zazpi lagun auzitegira eramateko? Auzipetuek azaldu dutenez, sentsibilitate politiko jakin bateko jendea eta lehendik aktiboki aritu izan dena sartu dute zerrenda beltz horretan, sorgin ehizaren bertsio gaurkotu honetan. Herri mugimenduak antolatzeke dituen modu asanblearioak eta burujabeak ez onartzeko modua da, erreala ez den hierarkizazio bat egitea. Horregatik diote, epaitegira eraman dituen promotoraren estrategia ez dela eraginkorra, Aroztegia proiektuaren aurkako erresistentziak aurrera jarraituko duela, zazpi herritarrak kartzelaratu edo ez: bailara oso baten borondatea duela aurka Lekarozko promotorak egin nahi duen negozio espekulatioak.

Zazpi auzipetuek absoluzioa eskatuko dute epaitegietan. "Talde kriminal antolatu bat izatea eta derrigortze eta bortxa delitu larriak egin izana" da Espainiako fiskaltzak eta promotorak egotzi nahi diena. Kriminalizazio hau desmuntatuko dute herritarrek otsailaren 1ean Iruñean egingo duten manifestazioan. Aurrekari larria da Aroztegia, herritarrak beren eskubideen, luraren edo komunitatearen alde antolatzea eta mobilizatzea "talde kriminal" bateko kide izatearen sinonimo bihurtu dezakeena. Hain justu, luxuzko hotela, golf zelaia eta 200dik gora etxebizitza eraiki nahi dituen Aroztegia proiektuari hainbat alorretatik egin diote oposizioa 20 urtetan: luraren defentsa, ekologismoa, euskararen aldeko borroka, feminismoa, etxebizitzaren espekulazioari aurre egiteko mugimendua... Zer nahia-go lukete aberatsek, haien diru goseari mobilizazio baketsuen bidez aurre egiten dieten herritarrak "talde kriminal antolatu" izendatzea baino? Aroztegia kasuan ikusi da, jauntxoek lortzen dutela legearen gainetik eta tokiko erakundearen gainetik pasatzea; herritar antolatutako dena denen ondarearekin espekulatzeko eta diru publikoa patrikaratzeko duten oztupo handiena. ●



# 500

testigantza, sexu erasoei lotuta, jaso ditu 2024ko azaroan martxan jarri zenetik Instagrameko 'Denuncias Euskal Herria' kontuak. Indarkeria matxistari buruzko lekukotzak jasotzeko kontua emakume talde anonimo batek abiatu zuen.

# 166

preso ditu Baionako espetxeak, baina 75 aterpetzeko gaitasuna du. Horrek erran nahi du, 9 metro karratuko geletan, hirunaka metatzen dituztela atxilotuak. %221eko gainpopulaztea du presondegiak.

# %25

Desagertzeko "arrisku handian" da ur gezetako animalien %25a, laborantza industrialak, urtegiek eta kutsadurak ondorioztaturiko "gaitzeko presioengatik", *Naturen* argitaratu dutenez.

*"Euskal langileok ez dugu genozidioaren konplize izan nahi"*



#### LAB

Bilboko Portua blokatu du, Euskal Herriko enpresek Gazako genozidioarekin negozioa egin ez dezaten aldarrikatzeko.

2025-01-15

*"GARAIA DA HERRI HONEN KONTRA TORTURA MODU SISTEMATIKOAN ERABILI DELA AITORTZEKO"*

#### EUSKAL HERRIKO TORTURATUEN SAREA

Otsailaren 15ean eratu eta aurkeztuko du bere burua Euskal Herriko Torturatuen Sarea. Torturatu oro gonbidatu dute bertan parte hartzera.

2025-01-15

*"Sei hilabetero aitzakia berri bat asmatzen du Frantziako Gobernuak muga ixteko"*

#### J'ACCUSE KANPAINA

Urtarrilaren 26an "migrazio politika arrazista eta hiltzaileak" salatuko dituen manifestaziora dei egin dute, eta Korrikaren egunean 36 lagunekin muga pasatzegatik urtarrilaren 28an Baionan epaituko dituzten ekintzaileen kargugabetzea aldarrikatu.

ANTXETA IRRATIA (2025-01-16)



## TEKNOLOGIA

## Bizitza sistemak



DIANA FRANCO EGUREN

**B**izitzak dena inguratzen du, mugatua eta hauskorra da. Bizitza onak bizitzeko, gorputzak zer egin badaikiela iruditzen zait, buruak ordea, nahiz eta jakin (ondo informatuta dagoenean), askotan gorputza nahita isiltzen duela ikusten dut. Isiltze horretan burua beste buru batzuekiko harremanetara irekitzen da: sistema. Batzuetan sistema mendekotasun harremanetan oinarritzen da, gorputza beste buru eta interesen menpe jarrita. Bestetan, sistema elkarrekikotasun harremanen baitan eraikitzen da.

Aste honetan zientzia fikziozko pelikula bat ikusi dut: teknologia aurreratuenez eta oparotasun materialez beteriko munduan bizi zen zibilizazio batean, guraso batek kanpora joan behar zuen lanera zebait urtez, hiltorian zeukan alabari tratamendua ordaintzeko; euren gorputzak aldentzen eta isiltzen ziren. Euren sisteman, gailu aurreratuenak eskuragai zeuden, osasuna gorputzak menderatzeko tresna bilakatu zen.

Garaiotan ere, pertsona askok bizitza kontuengatik migratzen du, buruak nahi ez baina euren gorputzak behar dituen aldaketak egitera behartzen ditu. Pertsona migratuekin lantegiak egin ditudanean eta Osakidetza aplikazio mugikorrean jartzen dugunean aurretiko hitzorduak hartzen ikasteko, Osakidetza hitzaren esanahia azaltzen diet: lankidetzat bat herritarren osasuna zaintzeko; hunkituta geratzen dira. Ez da gutxiagorako, bizitza babesteko sistemak altxor bat dira. Amerikako Estatu Batuetan, baliabiderik ez duten haurrek limoi zukua saltzen dute ebakuntza bat finantzatzeko, edota crowdfunding bat egiten dute dohaintzak lortzeko. Mexikotik gertu daudenak beste aldera joaten dira, han osasuna unibertsala delako; nire alabak berak Mexikoko osasun publikoko zerbitzuak erabili behar izan zituen behin, eta arreta bikaina eskaini ziguten. Azken asteetan, ordea, botere guztiak gerrarako sistemak sortzeko beharraz dihardute. ●

## NAZIOARTEA



## Sua eten da, okupazioa ez

AXIER LOPEZ

**470** eguneko genozidioaren ostean, su-etena indarrean sartu da Gazan. Lehen faseak 42 egun iraungo luke eta 33 israeldar eta 1.890 palestinar aske uztea eta egunero laguntzaz betetako 600 kamioi Gazara sartzeari aurreikusitako eremu populatuetatik bakarrik erretiratu beharko dute, eta eguneko hamalau orduz jarraitu ahal izango dute aireko "zaintza" operazioekin.

Akordio oso ahula da. Netanyahuk azpimarratu duenez, Trumpek ziurtatu dio "su-etenen aldi baterako izaera". Eta Trumpek zein Bidenek "erabateko babesa" eman diote Gazan genozidioa berriz abiatzeko, "Israelek uste badu negoziazioak ez doazela inora".

Oro har, nahiz eta preso eta bahituen trukea egon, eta gazatarrak orain beldur gutxiagorekin suntsituriko kaleetara irten, sakoneko arazoa, okupazioa, ez du su-etenen konponduko.

### NORK AGINTZEN DU HEMEN?

Trumpen ordezkari Steve Witkoff-ek egindako gestioen garrantzia azpimarratu dute Israelgo hainbat komunikabidek. Edonola ere, argi ikusten da, interesa izanez gero, AEBak gai direla Netanyahuren gaintetik jartzeko, eta alde aurretik berak errefusatu zuen zerbait orain onar dezan. Beraz, ez dira gutxi pentsatzen dutenak Netanyahu oztipoa dela "normalizazioaren" estrategia horretan. Baina, jakina, AEBetako gobernuaren barruan ere badira

Mendebaldeko Asia kontrolatzeko irtenbide bakarra indarkeria dela defendatzen dutenak, Afganistan, Irak, Siria edota Yemenen ondotox dakitenez.

### MARMOTAREN EGUNA

Sionisten okupazio, zapalkuntza, segregazio eta krimenen etenalditxoak ikusiko dugu egunotan. Su-eteneke biziak salbatzen dituzte eta, beraz, poza agertu da Gazan. Baina azken bi hamarkadetan Israelgo Armadak Gazan sarraskiak egin ditu 2004, 2006, 2008-2009, 2011, 2014, 2018, 2019 eta 2021ean. Urte horietako bakoitzean lortutako su-etenen itunek ez zuten balio izan sionisten hurrengo sarraskia eragozteko.

Erresistentzia ez dute garaitu baina testuingurua okerragoa da palestinarrentzat. Erresistentzia berrantolatuko beharko dute, suntsituriko herrialde batean, baja askorekin eta, batez ere, eskualdearen egoera askoz kaskarragoa izanik. Siria fundamentalisten eskuetan dago, iparraldea gerran, mertzenario turkiarrek okupatua, eta hegoaldean sionistek lur gehiago lapurtu dute. Libano krisi batean da, Hezbola oso kaltetuta dagoela. Eta Iran inperialismoaren jo-puntuak dago.

Dena dela, akordio hau porrota da Israelentzat, Libanon negoziatutakoa bezalaxe. Hamas eta Hezbola ez dituzte desagerrarazi, eta palestinarrek ez dute masiboki beren lurretik alde egin. Izan ere, palestinarrek diotenean erresistentzia garaitzea dela, ez da kapritxo hutsa, estrategia baiziki. ●

# Txotx!

FOKU

**EUSKAL HERRIA** / Hasi da sagardo denboraldi berria eta han-hemenka ospatu dute. Irudietan: Gure Zirkuak zabaldu du Alorreneako txotx denboraldia. Iker Galartzak, Joseba Usabiagak eta Lur Aranburuk egin dute lehen txotxa, zirkuko jantziak soinean. Saizarren, Perico Delgado txirindulari espainiarra omendu dute, jende ezagun ugariz inguratuta. Eta Arabako Sagar eta Sagardogileen Elkarteak Aramaion egin du estreinua. Aurten Euskal Herriko Hazien Sareak zabaldu ditu kupelak, Euskal Herriko artzain guztien omenez.



# EZ EZAZULA MEMORIA GAL, ZURE AUZOA ERE GAMONAL

Burgosko Gamonalen 2014ko urtarrilean gertaturikoa M15 mugimenduak eta antzekoek hauspotutako protesta soil batzuk izan zirela uste duena, oso erratuta dabil. Auzoaren memorian arakatzea besterik ez dago konturatzeko zer nolako eragina izan zuten iraganeko galera sentimenduak, hirigintzak, klasismoak eta borroka kolektiboek. Hamaika urteren ondoren, irakaspen bat: oroitzeak etorkizuna iragartzeko balio lezake, baita zure auzoan ere.

 **URKO APAOLAZA AVILA**

**G**auza guztiak arrazoiren baten-gatik gertatzen dira. Begi bistakoa dirudien esaldi ezagun hori irakurri dugu *Gamonal*. En *el eco de una mismo recuerdo* komiki liburuan (Gamonal. Oroitzapen bera- ren oihartzunean. La Oveja Roja, 2021), eta badu bere mamia, Gamonalen ere zerbaitengatik lehertu baitziren istiluak 2014ko urtarrilaren 10 hartan, PPren esku zegoen Burgosko Udala bulebar garesti bat egiten tematu zenean.

Krisi ekonomikoak gogor jotzen zuen oraindik, eta askorentzat milioika euroko proiektu hori diru-xahutze hutsa zen, zerbiztu publikoak eskas ziren tokian.

Hainbat egunez, auzotarrak hondeama- kinen aurrean jarri ziren, banketxeak eraso zituzten, edukiontziei su eman, eta poliziaiek 46 lagun atxilotu zituzten. Azkenean, bulebarra ez zuten egin. As- kok orduan ikasi genuen komuneroen Gaztela urruneko auzo haren izena, eta garaipen hark inspiratuta zabaldu ziren beste borroka batzuk, *Gamonal efektua* deiturikoagatik.

## **2025: APARKALEKUAK KEZKA ITURRI**

Gaur Gamonalera hurbiltzen denak ez du sumatuko duela hamaika urteko iraultza txiki haren ageriko ondorio-

rik. Protesten epizentro izan zen Vi- toria kale luzean autobus publikoak harantz-honantz dabiltza Gabonetako led argien azpian, auzoko asanbladak egiten ziren kultur etxean umore erra- zeko monologoak entzungo dituzu, eta Burgosko liburu dendetan galdetzen baduzu, “ah bai, Gamonaleko hori...”, erantzungo dizu liburuzainak, aipatzea tabua balitz bezala.

Baina sakoneko arazoak hor jarrai- tzen du, eta adibidez, altueran egin nahi duten aparkaleku handi bat da orain auzotarren kezka iturri nagusienetakoa. Zientoka auto kabituko lirartekeen hain- bat solairutako eraikin zatar bat egitea





Gamonaleko auzotarren elkarretaratzea Vitoria kalean, 2014ko urtarrilean, matxinadak eztanda egin zuenean.

WIKIPEDIA

ez zaie ideia ona iruditzen, ez trafikoarentzat, ez diru-kutxa publikoarentzat, ezta osasunarentzat ere. Beste borroka bat ernetzen ari da Gamonalen, bat gehiago bere historian zehar.

Izan ere, auzoaren historiatik asko ikasi daiteke. *Gamonal* komikia Maria de la Fuente marrazkilariak eta Sergio Izquierdo historialariak egin dute, eta 2014ko protestez harago, gamonalderen nortasuna nola ondu den erakusten du, egiazko testigantzetan oinarrituta. Hala, ikusiko dugu Euskal Herrian antzeko ezaugarriak dituzten beste hainbat eta hainbat auzo obreroren bilakaera ez dela oso desberdina izan.

---

## **Sakoneko arazoak hor jarraitzen du, eta adibidez, zientoka auto kabituko liratekeen hainbat solairutako altuerako aparkaleku bat da orain auzotarren kezka iturria**

### **GOLDETIK DESERTATU, FABRIKAN SARTZEKO**

Gamonal izena *gamon* edo anbulu lan-

daretik dator, garai batean erruz hazten baitzen Río Pico erreka ureztatutako zelai horietan, ganaduaren bazkarako. Erdi Aroan, Gamonal ostatu ugari zituen herri garrantzitsua zen, Santiago bidearen erdian baitzegoen. Auzoan oraindik mantentzen dira hori gogoratzen duten ohiturak, *titos* deituriko lekaleak banatzen diren festa, esaterako. Baina XIX. mendetik aurrera Burgosek beretzako hartu nahi izan zituen lur baliotsu horiek, hiriaren zabalkunderako “erreserba” bezala. Anexioa ofizialki 1955ean egin zuten agintari frankistek eta hortik gutxira Polo Industrial bat eraikitzeko aukeratu zuten, enpresak pizgarriekin



**VITORIA KALEA** 2014ko istiluen epizentrotza izan zenak honako itxura du gaur egun (ezkerrean). Etxebizitza bloke handiek, bi hormatzar bailiran, auzoa ixten dute kalearen luze osoan. Hamarkada bakoitzean ziklikoki sortu dira gatazkak; eskuinean, 1980ko hamarkadako irudi bat.

dopatuta. Orduan, probintziako herrietako nekazarien exodoa hasi zen.

“Segituan konturatu ginen irentsi gintuzten fabrika zerri hauetaz aparte, hemen dena gure herrian bezala zela –azaltzen du Gamonalera migratu zuen pertsona horietako batek komikian–. Goldetik desertatu genuen zementuzko blokeetan sartu eta bizitza nazkagarri osoan lanean jarraitzeko”. Gaur egun ere toki askotan gertatzen den prozesu bera da: milaka migratzailek sorterrira uzten dute etorkizun hobe baten bila, baina berehala ulertzen dute paradisu hori ez dela esan ziotena bezalakoa.

Zeukaten guztia galdu eta atzean utzi beharrak erabat markatu zuen bizilagun berrien izaera. Gamonal, egun batetik bestera Espainiako Estatuko dentsitate handienetako auzunea izatera pasa zen –orain, 60.000 biztanlerekin, Burgos hiriburuko populazioaren herena hartzen du–. Eraikuntza enpresei poltsikoa berotzeko, adreiluzko eta porlaneko etxebizitza-bloke erraldoi ugari jaso ziren, zentzurik gabe ordenatuta eta ekipamendu edo zerbitzurik apenas zeukatela. Hori izan zen geroko borroken ernamuetako bat, hirigintzak ere gauza asko esplikatu baititzake.

### **GAMONALDIK GERNIKARA BONBAZ KARGATUTA**

Gamonali buruz galdetu diogun liburu-

## **Zeukaten guztia galdu eta atzean utzi beharrak erabat markatu zuen bizilagun berrien izaera. Gamonal, egun batetik bestera Espainiako Estatuko dentsitate handienetako auzunea izatera pasa zen**

zainak ez digu askorik kontatu, baina erreferentzia bat eman digu sikiera: auzoko gaietan aditua den Vicente Vivancosek idatzi berri duen *La militarización de Gamonal* (Gamonalen militarizazioa. Incobi, 2023) liburuarena. Burgos apaiz eta militarren hiria dela uste duenak, irakurri beharko luke, gari alea lastotik bereizteko.

XIX. mende amaieratik militarrek begiz jota zuten Gamonal, eta hango lur batzuk bereganatu zituzten, ur edan-garriaren truke tiro-zelaia jarri asmoz.

Geroago aerodromo bat eraiki zuten, Espainiako bakanetakoa zena. Gerra garaian Francisco Franco, Emilio Mola eta beste buruzagi faxista askoren joan-etorrien eszenatoki bihurtu zen toki hura, herritarrak lekuko isil zituztela. Handik atera ziren 1937ko apirilaren 26an Gernika erraustu zuten Kondor Legioko hegazkinak, bonbaz kargatuta. Baina Gamonaleko herritarrek ere jasan zuten eskarmentua frankisten eskutik, herriko maisu bakarra fusilatu egin baitzuten.

Gerra amaitzean, Juan Yagüe jeneralaren aginduz militarrek lur gehiago okupatu zituzten: “Edo lagapenean eman edo desjabetu, ez zieten beste aukerarik utzi, zer egingo zuten? Militarrek musu-truk lortu zituzten lur horiek”, azaltzen du Vivancosek. Horrela, pixkanaka, kuartelez inguratutako eta militarizaturiko herriak, gaur egungo auzoa dena izaten amaitu zuen. Inbutu urbano itogarri horretan, Gamonalen irteera bakarra Vitoria kalea da, antigoaleko N-1 errepidea, eta muga fisikoak muga sozial itzela ere sortzen du.

### **KLASISMOA ETA KLASE BORROKA**

José Medina eta Marcos Erro auzotarrek *Gamonal. La historia desde abajo* (Gamonal. Historia behealdetik. Traficantes de Sueños, 2017) liburua idatzi dute, eta sarean ikusgai dagoen aurkezpenean oso ondo azaltzen dute batzuen lotsa



GAMONAL KOMIKIA



DIARIO DE BURGOS

**MEMORIA ARIKETA** Azken urteetan auzoaren inguruko memoria ariketa sakona egiten ari dira eta komikiak (ezkerrean) eta liburuak egiteaz gain, muralak ere margotu dituzte Zentro Sozial Berreskuratuaeren hormetan (eskuinean).

eta gutxiespen sentazioa norainokoa den: “Elkarrizketatu batek esaten zigun Eguberritako argiak ere itsusiagoak dira Gamonalen”. Txandalaren eta txiste gaiztoen barria da oraindik kapitaleko askorentzat... Izan ere, zaborra biltzeko kamioiari “Gamonaleko autobusa” deitzea zer da, klasismoa ez bada?

Langile klasea bizi den auzoetan, aldiz, elkar ulertzen dira: bizitza errealeko eguneroko arazoak sufritzen dituztenen lengoaia hitz egiten dute. Hala irakurri dugu *Gamonal* komikiaren hitzaurrean. Gamonalen zaila baita oso aurrera egitea, eta hori ondo ikasi dute auzotarrek. Komikian erlojugile anarkista baten ahotik entzungo dugun bezala, “hemen ez dago ez dotaziorik, ez espazio berde-

rik, ezta institutu bakar bat ere, pelea-tzen lortu ez denik”. 1980an autobusetako tiketen prezioak, 2005ean lurrazpiko aparkaleku bat... Beti egon da kalera ateratzeko motiboren bat. Eta 2014ko bulebarraren kontrako protestetan M15 mugimenduak paper garrantzitsua jokatu zuen arren, aurrekari horiek gabe ezin da ulertu txanparta hark piztu zuen sua.

### BLOKEEN ARTEKO HARROTASUNA

Abenduan hotz da Burgosen, eta Arlazón-Gamonal 01 autobus lineak zuzen-zuzen eraman gaitu auzoraino, baina geltoki batean ez da gelditu, eta horrek emakume baten haserrea piztu du. 2014tik egindako memoria ariketak nolabaiteko ahalduntze bat ere ekarri

du bizilagunen artean, etxebizitza-blokeen artean bizitzearen harrotasuna. Horrelako zenbat ote Euskal Herriko hiri eta herrietako aldirietan?

Garai bateko Ateneo Popularraren lekukoa Zentro Sozial Berreskuratua (CSR) hartu du orain Gamonalen. Mural ikusgarriekin apaindutako eraikin okupatutik bota nahi ditu Caja de Burgos banku-fundazioak, baina ez dute lortu oraingoz. Kartel bat zintzilik dago deialdi honekin: urtarrilaren 16an elkarretaratzea Plaza Nagusian, altuerako aparkalekuaren aurka. Hau irakurtzen duzunerako igarota egongo da, baina orain asma dezakezu zein izango den auzo borrokalari honen historia irudikatuko duen hurrengo kapitulua. ●



ZINKUNEGI  
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

[zinkunegioptika.com](http://zinkunegioptika.com)



# Anton Mendizabal

BIDE BERRI BILA BETI



## NOIZBAIT ERE GAUZAK BUKATU EGIN BEHAR DIRA, KONPLITU DUGU ARGIA SARIEKIN



Behin batean, gazterik, gidoi nagusia betetzea egokitu zitzaion. Elbira Zipitriaren ikasle izanak, ikastolen mugimendu berriarekin bat egin zuen. Irakasle izan zen artisau baino lehen. Gero, eskulturgile. Egun, musika jotzen du, bere gogoz eta bere buruarentzat. Eta beti, eta 35 urtez, ARGIA sarietako eskulturak egin dizkigu.

 MIEL A. ELUSTONDO  ZALDI ERO / ARGIA CC-BY-SA

### **35 urte eta gero, azken ARGIA sariak dituzu, hortaz?**

Bai. Azkeneko sei eskulturak egin ditut aurten, ARGIAkoei iaz esanda: "Datorren urtekoak izango dituzue nire azken lanak. Noizbait ere bukatu behar dugu gure zera hau, eta nahiago dut neuk bukatu, zuek ni bidaltzea baino!". Pixkanaka dena likidatzen ari naiz, lan denak uzten. Horregatik etorriko zinen, ezta?

### **Azken sariak dituzulako?**

Bestela inork ez baitit kasurik egiten! Hemen Oteiza eta Txillida besterik ez dago! Ni ez naiz fenomeno, baina hortxe dira José Ramón Anda, Rikardo Ugarte, edo Koldobika Jauregi eta José

Zugasti –ez dira hil zaharrak biak ere–, sekulako artistak eta gu, berriz, ezer ez balira bezala! Horixe du mitoak, dena xurgatzen du.

### **Ibili handia egina duzu...**

Ez dakit oso handia den ere!

### **Zure gainean irakurri dugunak ez dio dudari zirrikiturik uzten. Donostian jaio zinen, 1945ean...**

Donostia zaharrean, Donostia bulebarreran bukatzen zen garaian. Hor ziren beti Amara zaharra, Antigua... beren nortasunaren jabe. Gure Donostian, beraz, batzuk ginen koxkeroak, eta besteak ziren joxemaritarrak, ensantxe-

orientalekoak edota kaikoak. Lau kasta. Koxkeroak ginenok harreman handiagoa geneukan probintziatik etortzen zen jendearekin, baserritarrekin, haiek Bretxara [merkatua] etortzen ziren eta. Bestalde, gure etxean okinak ginen –huraxe izan nuen neuk ere lehen ofizioa–, eta baserritarrak ogitara etortzen zitzaizkigun, eta ekartzen ziguten euskal nortasuna. Koxkerook askoz gehiago bizi izan dugu giro hori, gainerakoek baino.

### **Filosofia eta Letrak ikasi zenuen.**

Gustuko nuen okin ofizioa, oso esker oneko lana zen, eta diferentea egunero. Batean hego haizea ibiliko zen, eta





# Anton Mendizabal Cristobal

DONOSTIA, 1945



Okina lehenik, irakaslea gero. Filosofia eta Letrak ikasi zuen, Pedagogian espezializatu eta Errenteriako Orereta ikastolan lan egiteko. Tailu egiten erakutsi zion osabak, eta Errenteriako Artisautza azokak bidea ireki zion. Artisautzatik eskulturara egin zuen, eta horretan eman du bizia. Han eta hemen ageri dira berak eginak, gure herrietako toki publikoetan nahiz ARGIA saridunen etxe partikularretan. Mitoek isilarazitako berealdiko artista dugu *Antton*.

leioa itxi beharra, masa alferrik galdu ez zedin. Bestean, bestelako zera bat, eta hari ere aurre egin beharra. Familiakoa genuen okindegia; "Mendi", zuen izena. Aitona Adunakoa genuen, Pello Mari Otañoren lehengusua, eta oso bertsozalea. Ameriketara migratu zuen, eta, itzuleran, okindegia ireki zuen Donostian. Gure aita okin, eta neu ere bai gero. Eta enpresa-teknikari ikasten hasi nintzen, okindegian lanean segitzeko. Aitak aurreikusten zuen okindegi txikiak etorkizunik ez zutela, bildu beharra izango zutela, eta, orduan, gerente ikasiren bat beharko zutela. Bide horretan jarri nintzen.

## Baina, azkenean, Filosofia eta Letrak ikasi zenuen.

Bai. Galdera motza egin duzu, baina erantzuna da luzea! Kar-kar! Hiru urte ere egin nituen enpresa-teknikari ikasten, baina, ordurako -1968 inguru horretan-, ikastolak eta gainerako mugida guztia hasita zegoen, eta saltsa hartan sartu nintzen neu ere! Hiazinto [Fernandorena] Setienek konbentzitu ninduen ikastolara sartzeko, han denak emakumeak ziren garaian! Enpresa-ikasketak utzi eta Filosofia eta Letrak egiten hasi nintzen, gero Pedagogia ikasteko. Hiazinto, Pakita Arregi... jende askok lan handia egin zuen ikastolak aurrera ateratzeko. Eta ni saltsa hartan sartu nintzen, ordu arteko dena utzita, okindegia eta beste. Ikasle libre nintzela ikasi nuen Valentziako Unibertsitatean.

## Etxeko okindegia utzi, ikastolaren munduan sartu... Zer esan zuten gurasoek?

Aitak kolpe handia hartu zuen. Ez niola segituko ikusi zuen, batetik, eta, bestetik, berriz, ikastolen saltsan sartu nintzela. Eta ikastoletan sosik ez zegoen garai hartan, ez gizarte segurantzarik ez beste. Baina halakoxeak ginen, utopikoak! 1968an Orereta ikastolan hasi nintzen, eta hantxe egin nituen 25 urte.

## Baina ikasketak egiten ari zinela esan diguzu...

Bai, garai batean, ikastolako lana, ikasketak egin, eta okindegiko lanean, hiru gauzak batera egin izan nituen.

Eta bizi?  
Etxean!



**Bide berrian askoz aurrerago joan ezin naizenean, errepikatzen hasita nagoela iruditzen zaidanean, beste bide berri batzuk lantzen hasten naiz"**

## Kar-kar! Txistu ikasketak egina zinen ordurako...

Isidro Ansorenarekin! Lau urteko karrera zen, eta onetsuenek bosgarren urtea ere egiten zuten. Ansorena bere gelan egoten zen, eta banaka hartzen gintuen ikasleok. Bitartean, kanpoan izaten ginen, gure aurretik sartutako ikaslea irten zain. Akordatzen naiz Ansorenaren bulegoan nola jartzen zuen: "Músicos juglares". Eta ni, neure artean: "Zer esan nahi ote dik horrek?!". Ez nuen entenditzen! Donostiak Gazte banda zuen, eta nik hantxe jotzen nuen. Ez dago misteriorik: dena gidoiaren barruan zegoen! Txistu ikastea, txalaparta jotzea,





ikastoletan sartzea... Horixe zen gure gazte garaiko gidoia. Guretzat abertzaletasuna eta euskara ziren gauzarik inportanteenak, eta hortxe ibiltzen ginen.

#### **Pedagogia ikasketak egin zinen, ezta?**

Ez, ikasten ari nintzen. Eta ikasketa haiek bukatzeko baldintzapean onartu ninduten Oreretan. Erreboluzio pedagogikoa gauzatu genuen. Jexux Mari Goñi, Joxean Arbelaitz, Xabier Apaolaza, Itziar Idiazabal, Gillermo Etxeberria... Curriculum propioa osatu genuen, ofiziala baztertuta! Ikastolan egiten genituen berrikuntzak Valentzian aurkezten nizkion han zuzendari nuenari, eta hango dekanuari ere, Marín Ibañez, kontatu izan nion zertan ari ginen. Oso interesatu zen, eta etorri ere egin zen Donostiara, eta egin zuen hitzaldia udaletxeko areto nagusian.

#### **Artearen historia, Musikaren kultura, Arte plastikoak... irakatsi zenituen ikastolan. Gero, artisau lanetan hasi zinen, nola ez dakidala.**

Askotan, bi-hiru elementu batera gertatzen dira, eta horixe izan zen nire kasua. Gure erreboluzio pedagogiko horrek ondorio gogorak ekarri zituen. Fronte asko genituen irekiak, eta gu, beti, ezkerrekoak ginen, arriskukoak. Ez ginen elizkoiak, eta, bestalde, euskara batua-ren aldekoak. Funtzionamenduan ere, demokratikoki hartzen genituen erabakiak. Laster, ordea, zalantzan jarri zen funtzionatzeko modu hori, eta gehien-

goak erabaki bat hartuta ere –greba egiteko kasuan, adibidez–, batzuk esaten hasi ziren gehienek erabaki hura hartuagatik ere, beraiek lan egiteko eskubidea zutela. Hori oso momentu inportantea izan zen.

#### **Zergatik inportantea?**

Nire ustez, 1983 aldean-edo, halako dekadentzia bat hasi zen. Irakasle on arteko kohesioa galtzen hasi zen, eta bat baino gehiago alde egiten hasi ginen. Batzuk, unibertsitatera, ni neu bezala. Zorroagako [EHU, Donostia] lehen urtea izan zen, baina hura ere ez zitzaidan gehiegi gustatu, eta ikastolara itzuli nintzen.

#### **Eta? Zer berri ikastolan?**

Dena aldatua zegoen, geroz eta zailago zitzaidan giro hartan lan egitea. Haatik, oso ondo konpontzen nintzen ikasleekin, mendira eramaten nituen asteburuetan, zikloturista taldea ere osatu genuen, “eskolan” kooperatiba... Irakasle “berezia” nintzen. Beste irakasle batzuek, berriz, gogor esaten zuten ezetz, beren lana ostiralarekin batera bukatzen zela, eta pentsatu ere ez asteburuan ikasleekin ezer egitea. Eta, horrela, frankotiratzaille sentitzen hasi nintzen.

#### **Zu ere zeure bakardadean...**

Izan liteke. Bestalde, eskulana gustatzen zitzaidan, eta tailugilea nuen osaba, azpeitiarra, Alejandro Amenabar. Lehenengo, erremontista izan zen, pilotari profesionala. Abregorekin binaka jokatutakoa. Alejandro gure izeba Anparo-



## **FAUSTINA CARRIL**

“Elbira Zipitria aipatzen da beti, mitoa, baina baziren beste zenbait andereño ere, lan handia egiten zutenak. Elbiraren ikasle izan nintzen, baina besterik ere ezagutu nuen. Faustina Carril, kasurako. Kaikoa zen. Arrantzale familiakoa. Elbira baino askoz goxoagoa zen. Nik nahia-go nuen Carril”.

## **MANUEL LEKUONA**

“Argizaiolak egiten hasi nintzenean, eta etnografia lanak irakurtzen, ohartu nintzen zer gauza berezia den argizaiola. Manuel Lekuonarekin ere hitz egin nuen horretaz, eta gogoan ditut haren azalpenak, argizaiola kristautasunaren aurrekoa zela eta hau eta hura. Zenbait apai-ek, adibidez, argizaiolak erre zituzten, beste batzuek liburuak erre zituzten modu berean!”.

### *Azken hitza*

## **ARGIA, 'ARGIA'-N**

“Irudi bat nuen, Picassoren Guernica koadroa. Eta, han, argia, borroka baten argia. Garbiñe [Ubeda] eta Josuri [Landa] aurkeztu nien, eta ontzat eman zuten. Hasieran, egurrean egiten nuen. Gero, musikarekin-eta hasi nintzenean, egurrak ez zidan balio, bestelako material bat behar nuen, eta kristalera pasatu nintzen. Argia sartu nuen ARGIA sarietako eskulturari”.

rekin ezkondu zen Lasarte-Oriara, eta burdindegia jarri zuen han. Tailugilea ere bazen, ordea, eta lanean erakutsi zidan. 1970-72ko kontuak dira. Hobby bat zen. Handik urteetara, ikastolako giroa iluntzen hasi zitzaidanean, lagungarri gertatu zitzaidan osabarekin ikasitakoa. Eta, hori, beste gertakizun batekin batera etorri zen: Errenteriako artisautza azokarekin. Laster, artisautzaren booma izan zen.

### **Zeure tailuak egiten hasita zeunden, beraz?**

Kutxak, argizaiolak, hilarriak eta horiek egiten nituen. Eta azokara kutxak eramanez, eta jendeak erosi! Eta Errenteriako azokaren arrimuan, azokak antolatzen hasi ziren han eta hemen, eta zirkuituan sartu nintzen, artean ikastolan lanean ari nintzela. Bateko eta beste azokara nire lanak eramanez, eta ia dena saltzen nuen! Eta, horrela, bide berria ireki zitzaidan. Ikastolan, gero eta tristeago eta amorratuago nabilen. Artisautzan, berriz, guztiz kontra! Eta, halako batean, ikastolan frankotirantz aile izateari utzi nion, hango lana ere utzita. Gaizki pasatzen nuen. Ikasleak ziren nire sostengua, nire arnasa, baina ez zen posible hala segitzea. Eta, horrela, egun batean etxepean lokal txiki bat erosi, eta artisautzan hasi nintzen buru eta bihotz.

### **Argizaiola eta hilarriak...**

Ez da arraroa ere, gu koxkeroak izanda, ondoan geneukan beti San Telmo [museoa]. Elbirak behin baino gehiagotan eramanez izan gintuen hara, eta neure kontura ere joan izan nintzen. Motzean: ni ofizioa lantzen hasi nintzenez, ofizioak berak elementu jakin bat eskaini zidan, argizaiola, zer pentsatu handia ematen duen pieza, eta argizaiolatik tiraka bestelako mundu batean sartu nintzen, eta hasi nintzen eskulturak egiten. Eta berriz ere bolada ona izan nuen, eskulturak egin, eta saldu egiten nituen! Gai honekin irekia nuen bidea *Sutar* lanarekin bukatu nuen, Oiartzunen jarri zuten. Hura egin eta etsi nuen.

### **Zergatik, etsi?**

Bide berriak jorratzea gustatzen zaidalako, horixe gustatu izan zaidalako beti. Bide batean askoz aurrerago joan ezin naizenez, errepikatzen hasten hasita nagoela iruditzen zaidanean, bide berri zen hura utzi, eta beste bide berri batzuk lantzen hasten naiz, gai berriak



DANI BLANCO / ARGIA CC-BY-SA

lantzen. Horixe egin dut beti. Horretan oso gogorra izan naiz neure buruarekin. Argizaiolak, hilarriak eta mairubaratzak egiten ere neure estilo jakin bat, neurea, garatu nuen, arrakastatsua, baina moztu egin behar izan nuen, oso lan ohizkoa egin zitzaidan eta. Hurrengo pausoa eman behar nuen. Beste gai bat.

### **“Beste gai bat”?**

Bai, gai-zerrenda bat bainuen! Esate baterako, pilota. Ni pilotaria izan nintzen. Aita, pilotaria. Osaba bat, berdin. Pilotan dezente ibilitakoa naiz. Pilota poltsikoan sartuta ibiltzen ginen. Frontoirik libre bazegoen, pilotan hasten nintzen, bakarrik egonda ere! Eta eskulturak egi-

“  
**Txistu ikastea,  
txalaparta jotzea,  
ikastoletan sartzea... Horixe  
zen gure gazte garaiko gidoia.  
Guretzat abertzaletasuna  
eta euskara ziren gauzarik  
inportanteenak”**

ten nituenez, pilota hartu nuen gaitzat, eta lan mordoa egin nuen, suerte ikaragarriarekin, [Aurrezki] Kutxak interes handia izan zuen eta. Eta pilotari buruzko eskulturen bidearen bukaeran, Azkoitiko frontoi-multzoen eskultura sortu nuen, Oteizaren omenezko proiektua.

### **Carlos López de Ceballos ageri da arkitekto.**

Berarekin lan egiteko eskatu zidan. Proiektu handia zen, osorik egin ez zena, Azkoitia gutxi zelakoan, nonbait. Proiektu hartan lanean ari ginela, etorri zen Eusko Jaurlaritzza, eta Gasteizen egingo zutela esan ziguten. Baina ez batean eta ez bestean, inon ere ez zuten egin. Hiru fase zituen proiektuak. Lehenengoan,

eskultura bera aurreikusi nuen, parke publiko gisara pentsatua, jendeak haren barruan pilotan jokatzeko. Bigarrenean, frontoi luzea, orain aparkalekua egitera doazen tokia. Eta hirugarrenean, eraikin bat zen, pilotaren dokumentazio zentroa izango zena. Gure proiektuari ateak itxi, eta besterik ere ez zuten inon egin.

### Azkoitiko frontoia duzu zeure azken pilota eskultura. Musika izan zenuen hurrengo gaia?

Bai. Eskulturaz gozatzen segitzen dut, jakina, eta, adibidez, inora joan, frontoi bat ikusi, pareta bat, eta hantxe miresten dut. Ez dut zaletasuna inoiz galdu. Baina bidea egin nuela iruditu zitzaidan, eta bide hura utzi, eta musikari heldu nion. Esan dut txistua jotzen ikasi nuela, baina ia derrigortuta, ikastolen garai hartan hura zen-eta jotzen ikasi behar zen tresna errebendikatiboa. Baina neure erabakiz ez nukeen txistua aukeratuko, nire ametsa orkestra zuzendari izatea baitzen. Baina horixe ez nuen egin. Ordainetan, musika asko aditu dut, eta irakurri ere bai.

### Irakurri dudanez, hainbat musikariren lana interesatu izan zaizu: Stravinsky, Wagner, Prokofiev, Strauss, Ramón Lazkano... Olivier Messiaen-en lanean oinarritutako Pildain estela-eta!

Musikarion hainbat piezaren interpretazio eskulturikoa egin dut. Musika ez da, bakarrik, musika, musika horrek dakarrena baizik. Izan liteke kolorea ekartzea, edo margoa, eta eskultura! Musika eraldatu egin lezake artistak! Organo baten soinuak, adibidez, espazioa bera sentiaraz diezazuke. Edo, alderantziz, desokupazioa senti zenezake ia melodiarik ez duen obra baten bitartez. Oteizak eskulturaren bidez egiten zuen bezala,



Xabier Otaegi (*Txirri*), Txema Vitoria (*Txiribiton*), Anton Mendizabal eta Jose Ignazio Ansorena (*Mirri*), pailazoek ARGIA saria jaso zutenean.

baina musikaren bitartez, akorde batzuk besterik ez erabiliz.

Hortxe desokupazio musikala. Eta esan dizut, berdin egin liteke hori eskulturan, pinturan edo musikan. Zertan ez arte batetik bestera salto egin? Oso gauza aberatsa da, nahiz, aldi berean, zaila izan. Horrexegatik izan zen azkena. Akorde eskultura egin nuen, Messiaen-en musika lanaren interpretazio eskultorikoa, eta akabo! 2012an, kito nire bide hura ere.

### Eta akabo, edo akabo bide hori eta beste bati ekin zenion?

Kar-kar! Akabo bide hori, zeren gero musika jotzen hasi bainintzen, neure buruarentzat. "Organoa jotzeko gai izan nahi diat!", esan nion neure buruari. Teklatuarekin jolasten hasi nintzen eta, gero, organoarekin probatzen. Oartzunen organo oso inportantea daukagu, baina

orain dela lau urte arteziak azaldu ziren elizan, harriak erortzen hasi ziren, eta organoa desmuntatu behar izan zuten. Eta halaxe dago oraindik, desmuntatuta, eta ni, berriz, hura berriz muntatzeko borrokan. Oartzungo Udala eta Gipuzkoako Diputazioa dirua jartzeko prest dira. Eliza, berriz, ez. Ez dirurik jarri, ez herriari eman. Eta hortxe ni.

### Bata bestearen ondotik itxi dituzu bideak eta, oraingoan, ARGIA sarien azken aldia izango dugu...

Orain dela 35 urteko bidea ere itxiko dugu. Noizbait ere gauzak bukatu egin behar dira, beti pentsatu dut hori, konplitu dugu ARGIA sariekin. Orain beste batek hartu behar du txanda. Horixe zen nire kezka, besteren bati bidea irekitzea. ARGIAk egingo du hori, bilatuko du sortzaileren bat herrian, eta egingo du aurerra, dudarik gabe. ●

**bertako** -rekin BAI!  
igogailuak | ascensores

**DROTARIKO ZERBITZUA**  
**100€-tik/hileko**

- Baietz mantentze-lan profesionalari
- Baietz benetako 24/7/365 zerbitzuari
- Baietz aurrezteari mantentze fakturan
- Baietz bertako hornitzaileei

GIPUZKOA  
943 903 450

BIZKAIA  
946 523 935

ARABA  
945 712 822

NAFARRDA  
848 870 917

[www.bertako.eus](http://www.bertako.eus)



# Iritziak

## Korapilo-morapilo mordoilo



**KARMELO LANDA**  
HISTORIALARIA

**H**iru korapilotan mordoilotzen digute euskaldunon elkarbizitza, eta urte luzez, pazientzia handiz eta erabakitasun irmoz ekin arren, loturok askatu ezinean gabiltza. Hiru bederen badira uneko korapiloak: presoak, euskara, etorkinak.

Urte berriarekin elkartu ohi gara milaka Bilbon, Euskal Herri osotik eta are urrunagotik etorritako herritar, lagun, adiskide, bidaide eta solidarioak, euskal preso politikoak eta errefuxiatuak behingoz askatu eta elkarbizitza bake-tsu eta askea proposatu-eskatu-erregutuz estatuari. Baina martxa honetan, datorren urtean ere itzuli beharra izango dugu. Espainiako Estatuko hainbat botere, aginte eta gobernutakoek ez baitute presoen korapiloa guztiz askatu nahi. *Gugandik zerbait lortu nahi duen euskaldunak gure gobernuaren musikan dantzatu beharko du*, kalkulatzeko dute Madriletik. Eta horrela doaz urteak eta hamarkadak presoen korapiloari amaiera eman ezinik.

Euskara dugu bigarren korapiloa. Erregimen frankistan egoera okerragoa zela eta, ondorengoek *elebitasuna* bederen eman digutela eta, hor gabiltza euskaldunok nahi eta ezinean, ikasi baina ezin erabili, hemen koofizial baina hor eta han ez, eta beti ere gaztelerara eta frantsesera derrigortuta, geurea den euskara atzeraka doala minez eta dolorez ikusi eta, hala ere, estatuen aginduei amore eman beharrean, beti etxe kalte.

Geure justizia sistema propioa behar dugu, zigorreen bainoago integrazioan oinarritua; geure kultura, hizkuntza, nortasuna garatu, geure historia eta memoria kolektiboa geuk landu

Etorkinen gaineko egoera da hirugarren korapiloa. Ongi etorri gure etxera, errefuxiatu, txiro, zigortu, baztertu, lur-rean kondenatuok. Horra gure sentimendua. Harrera egokia eskaini nahian, beraien nortasunak errespetuz zaindu eta gure naziotasunean bat egiteko eskuak zabaldu nahian. Baina gure etxea ez da gure, ezin dugu gure etxea gobernatu, eta estatutik, berriro ere, horretaz baliatzen dira bai etorkinen bai euskaldunon nortasunak *madre patria*-ren lotzetan ito nahian.

Urte zaharra joan eta berria etorri, euskaldunok ezin dugu estatu biek lotutako korapilo horietan mordoiloturik jarraitu. Guk geuk etxean zabaldu eta sendotu behar dugu elkarbizitza,

zorroztu burujabetzara, askatasunera eta bakera eramango gaituen estrategia propioa. Euskal Herrian bertan herritarren arteko batasuna lor daitekeela ikusi dugu Bilboko manifestazio sendoan, baita nazioarteko elkartasuna eskuratu ere.

Euskaldunok bertoko alderdi, sindikatu, instituzio eta herri erakundeak batu eta oinarritzko nazio helburuen inguruan adostasunean jarri behar ditugu, helburu zehatzen inguruan Ipar eta Hego, Nafarroa eta Bizkaia, Zuberoa eta Lapurdi, Araba eta Gipuzkoa, Euskal Herria bat garelako. Helburuak argi, aurrera egin naziogintzan konplexurik gabe. Oinarritzko elementuetan ez dugu atzera egin behar, euskal presoak preso politiko dira, gatazka politikoa den moduan, eta bide politiko demokratikoe-tatik bideratu behar ditugu soluzioak. Geure justizia sistema propioa behar dugu, zigorreen bainoago integrazioan oinarritua; geure kultura, hizkuntza, nortasuna garatu, geure historia eta memoria kolektiboa geuk landu, euskal nazioari egitura demokratikoa eskaini eta etorkizun propioa garatu.

Euskaldunok gauza gara, geure dimentsioetan, hori guztia era bikainean egiteko, are Madrilekoak eta Parisekoak baino ezagutza eta kualifikazio egokiagoan.

Burujabetza arlo horietan guztietan eskuratu behar dugu 2025 honetatik aurrera, eta korapiloak askatu. ●



SUKAR HORIA

## Semaforoa vs. herritarrak

**Z**irkulazioan lehentasunek garrantzi handia dute. Gidatzeko ikasten dugun lehen gauzatarokak dira: birit-bilguneak eta STOPak menperatu ezean nekez lortuko dugu gidabaimena.

Hala ere, lehentasunak ez dira kontu neutroak, eta historiak eta interes kontrajarriek aldatu izan dituzte. Autoak hirietan agertzen hasi zirenean, hildako kopuruak handituz hasi ziren etengabe, denenak ziren kaleetatik abiadura handian ibiltzen hasi zirelako. Horrek bi aukera ipini zituen mahai gainean: autoen abiadura mugatzea edo oinezkoak errepideetatik botatzea. Auto industriaren bultzadak bigarren aukera gailentzea lortu zuen. Bat-batean, oinezkoak bihurtu ziren euren heriotzaren errudun, autoaren eremu naturala baimenik gabe zeharkatu zutelako.

Semaforoek adierazten dute, agian, era garbienean, lehentasun horren leerratzea. Zenbatu ezazu zenbat denbora egoten den zain oinezkoa eta zenbat errepide gainekoa. Hiruko erregela baten bidez kalkula daiteke zenbat aldiz denbora gutxiago balio duen oinezko baten denborak.

Garraio politikan ere lehentasunak funtsezkoak dira: aparkalekuz beteriko kale bakoitza zuhaitzez beteriko espaloi bat izan zitekeen, parking bakoitzaren ordez parke bat egon zitekeen eta au-

tobideetara bideraturiko diruaren apur batekin garraio publiko duina izan ahaliko genuke. Ez da kasualitatea Espainiako hirien espazioaren ia %70 autoetara bideratuta egotea; eta Bilbon Errekaldeko saihebidetara lekua egiteko desagertu ziren etxeak ez zituen haizeak bota.

Txorierriko saihebidetara, Supersurra, Autzaganekeo tunela... orain arte beti egon da berde Bizkaiko Diputazioaren semaforoa autobide berrientzat. Leioa eta Sestao lotuko lituzkeen Subflubiala autobideak ere Foru Aldundiaren argi berdea jaso du, baina badirudi hainbat herritar bere bidean gurutzatu direla proiektua gelditzeko. Ez omen zaie zentzuzkoa iruditzen ia mila milioi euro bideratzea azpiegitura horretara, zerbitzu publikoak diru beharrea dauden honetan. Klima larrialdiak eta airearen kutsadurak ere kezkatzen ditu. Batzuek euren institutua ere babesten dute, patioan bertan hiru kilometroko tunela eraikitzeak horren biziraupena zalantzan ipintzen duela argudiatuta. Kanpaldia egin zuten irailean eta orain manifestazioa antolatu dute Bilbon.

Zerk balioko du gehiago, diputazioaren argi berdeak edo herritarren bultzadak? Ikusteke dago, baina gu ez gara begira geratuko. Otsailaren 8an gu ere kalera aterako gara proiektu horri bidea mozteko. Erdu zu ere bai. ●

## Hutsa egin

ITXARO BORDA  
IDAZLEA

**U**rte berria hastearekin batera, bizitza aldatuko diguten erabakiak hartzeko ohitura bada. Listak egiten ditugu hiru puntutan: bat, kirola gehiago praktika; bi, lagun zaharrak maizago ikusi; hiru, Islandiara itzuli, errealki eta metaforikoki. Xedeak beti xede geratzen direla ohartzen gara hila-beteak pasatu arau, nahiz eta haga ez genuen hain gora ere ezarria!

Badakigu ez dugula deusezen beharrik. Etxera sartzean, hamarkaden poderioz metaturiko girgila, liburu, disko edo DVD higatu horiek oro eman, saldu edo aurtiki beharko ginituzkeelako ideiak

zeharkatzen digu garuna. Horixe ere badakigu, huts desio hori Mendebalde okitu honetako hiritarren amets errepikatutako dela. Baiona errugbian Castresen kontra ari zen larunbat goiz eguzkitsu hartan, horretaz mintzatu nintzen deblauki, San Izipiritu auzoko aspaldiko ezagun batekin.

Okituetatik ez garela berresten genuen, dugun apurra lanaren gostuz eskuratu dugula, baina hargatik, zilegi bekigu gureak ez diren nahikunde horiez gozatzea: baratze japoniarren antzera antola ditzagun gogoak eta bihotzak, hutsa egin dezagun... huts egin gabe! ●

# Benito, gure emozioen alkimista hori



ANE ABLANEDO LARRION  
IRAKASLEA



DOM CAMPISTRON

**O**holtzak betiko utziko dituela jakinarazi zigun Benito Lertxundik badira jada hainbat aste, eta geroztik asko gara maila batean ala bestean umezurtz sentitzen garenak, halako galera edo abandonu sentsazioarekin, triste. Iruindarroi, behintzat, bere zuzeneko zirrara azken aldi batez sentitzeko "hautatuak" izatearen ohorea geldituko zaigu betiko, gurean eman baitzuen maisu handiak bere ibilbide luzeko azken kontzertu gisa gogoratua izango dena. Azkena izango zela inork ez baitzekien (ezta Benitok berak ere), betiko emanaldi baten modu alaietan eskainia eta jasoa izan zen, nostalgia girorik batere gabe. Kontsolamendu txikia, pena infinituaren aringarri.

Zaila da Benitoren garrantziaz modu orokor eta inpersonalean aritzea, eta horretarako, gainera, aski dira datuak: 60 urteko karrera egin du, etenik gabe eman ditu zuzeneko kontzertuak, protagonista gisa aritu da euskal kantagintzaren hasieratik orain arteko historian, eta jada tradizionalak direla kontsideratzen ditugun hamarnaka kanturen egile da. Inspirazio-iturri izan zaie askotariko sortzaileei, eta horien guztien aitortza jaso du.

Datuen gainetik, baina, gutako bakoitzarengan eragi(te)n dituen emozioak dira Benito handi egi(te)n dutenak, eta horiek ezin dira ez orokortu, ezta arrazoitu ere. Askok dira Benitoren eta bere kantuekin jendeak kontatzeko dituen gertakari pertsonalak, denak partikularrak eta errepikaezinak, eta horrek erakusten du ongien Benitok duen ahalmen magikoa, ia azaldu ezina dena: hainbeste bihotzengana iristeko gai izatea, hainbesteren erraiak (h)u(n)kitzen asmatzea, hainbeste arima dantzan ezartzen jakitea. Eta hainbeste urtez.

Nik asko zor diot Benitori, hainbeste, non esan dezakedan bera ezagutzea izan dela bizitzan gertatu zaidan gauzarik ederrenetako bat, nire bidea gehien markatu duten pertsonen arteko bat bilakatzearaino. 14 urte baino ez zituen orduko Ane gaztetxoak *Gaueko ele ixilen balada* entzun eta barnean halako kilika sentitu zuenean, eta oraindik nigan dago ahots sakon eta sarkor horrek sortu zidan inpaktuaren oihartzuna; bizipen askoren iturri izango zitzaidala hasieratik beretik jakin nuen seinale, senez ia.

Mundua deskubritzera ateratzeko nerabe-garaia nuen Benito ezagutu nuen, eta maisu izan nahi ez zuen mai-

sua topatu nuen beregan, bidea neuk egitearen balioaz hitz egin zidana, edo nire adimenaren agintari bakar neure burua izendatu beharraz. Eta nola ez, askatasunak duen garrantzia beti azpimarratuz, norberarenak ez ezik, gure nazioarenak ere bai. Herri menderatu izatearen kontzientzia Benitok piztu zidan, eta gure mina eta ezina horri lotuta daudela erakutsi. Irudika dezakezue zenbateraino zen gazte batentzat iradokitzailea elkarrizketa horietan ikusarazten zen mundu aberatsa.

Geroztik, nire barne mundurako elikagaia izan da bere musika, kantu horien gerizpean haziz, biziz, eta garatuz. Musika horretan metatu ditut nire bizitza osoko bizipenak, pozak handituz, eta minak sendatuz. Emozioen gordelekua zait, nire une gogoangarriak berriz biziarazten dizkidana. Benitoren musika nire bizitzaren atmosfera da, Ane loratu egiten den armonia, nire soinuaren etxe afektiboa. Eta zein zorioneko sentitzen naizen tamainako altxorragatik.

Benito, gure emozioen alkimista hori, zenbat gauza on eman diguzun. Nire miresmen osoa, zure handitasunagatik, eta esker ona baino ez, sentiarazi didazun guztiagatik! ●



# Ez gara aire



**INMA ERREA CLEIX**  
IDAZLEA ETA  
ITZULTZAILEA

**N**afarroa Arenan *Mitoaroa* ikusten izandako lagun batek “telurikotzat” jo zuen entzun-ikusitakoak. Niri ere hala iruditu zitzaidan teledibista medio etxetik hauteman nuena.

Pentsa daiteke *Mitoarook* piztutako grinak eta atxikimenduak proiektuaren ikusgarritasuna dutela oinarri, eta hala izanen da, baina bada beste zeozer sakonagoa fenomenoan. Pello Reparazek berak esanda, usteaz harago joan da jasotako erantzuna. Ikuskizun batek ez du hori lortzen ez badu estu konektatzen jendearen sentipenekin.

Baina, zeri estekatzen zaio gugan telurikotasun hori? Zeri egiten dio dei?

Herritik Iruñera bizitzera joan nintzanean, lekualdaketak pitzadurak eragin zizkidan. Gauza anitz aldatu ziren, eskola, usantzak eta lagunak, besteak beste, eta galera handi bat pairatu nuen: kontaktua ingurune naturalarekin, atxikimendua lurrarekin. Arbolen, belarraren eta lurraren usainak galdu (azienda-gorotzena ere bai, dena esan behar...) eta hiri-giroko beste batzuk erregistratu behar izan nituen (gasolina, asfalto eta askotariko sukaldearen usain-nahastu-

Lurrezko izaerak tira egiten digu, telurikotasunak, errealitate ukigarri eta hunkigarrien gogoak, harri bat ordenagailuaren alboan

rak...). Eta autoen eta tailerren zaratek ordeztu zituzten herriko txorrotxio-adausi-marru-karaka-balakak.

Hizkuntza-giroan ere mudantza: Zilbetiko gaztelaniak euskararen oihartzun zaharrak zituen gorderik, eta Iruñean berehala hauteman zituzten haiek nire mintzoan. Nire gaztelaniari etiketa jarri zioten ikastetxean: arraro (eta ni isil-lotsati gelditu).

Oraindik senti dezaket orduan bihotza dantzan paratzen zidan bozkario handia Zilbetiko lur hezea zapaltzean edo zuhaitz bat besarkatzean (ez da berria boladan den keinu osasungarri hori). Euforia hark pila-karga baten eran funtzionatzen zuen, helduleku bat zen aitzina egiteko jada arrunta nuen baina oraindik artifizial sentitzen nuen hiriko bizimoduaren.

Pandemiaren garaian bezala, non gutako gehienok hartu baikintuen naturarekiko irrikak, guztiz irrealak zirudien egoerari aurre egiteko.

Erdibituta bizi gara?

Teknologiak eta aurreramentu digitalak airez aire bultzatzen gaituzte, gu ere aire bilakatuta; eta haiekin pozik edo egiten dugu aitzin mundu globalizatuan, pitin bat izaki magiko bihurtzen gaituztela.

Baina lurrezko izaerak ere tira egiten digu, telurikotasunak, errealitate ukigarri eta hunkigarrien gogoak, harri bat ordenagailuaren alboan, mintzo zaharrek hizkuntza unibertsalen pare, txorrotxioak eta lohia bitekin eta lurrin artifizialekin lehian. Ez gara aire. Zorionez. ●

## bat Soziolinguistika aldizkaria



**SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA**  
Euskara biziberritzeko ikergunea

**BAT 133. ZENBAKIA ADIMEN ARTIFIZIALA ETA EUSKARA**

- **XABIER ARREGI** > Euskara, adimen artifiziala eta arimen naturala.
- **JOSU AZTIRIA** > Politika publiko digitalak euskararen biziberritze-aro berria bultzatzeko.
- **EDUARDO APODACA, ASIER AMEZAGA ETA ASIER BASURTO** > Itzulinguru proiektua. Itzultzaile neuronalen eragina euskararen erabileran.

### harpidetu edo oparitu > URTEAN 40 euro

- Hiru hilez behin, BAT aldizkaria etxean bertan.
- Hiru hilez behin, BAT aldizkaria PDFn eta EPUB-en jaso.

<https://bat.soziolinguistika.eus> / 943 592 556  
[bat.aldizkaria@soziolinguistika.eus](mailto:bat.aldizkaria@soziolinguistika.eus)

#### GUREAN atala

##### • URKO IKARDO >

Bortzirietako bilakaera soziolinguistikoa aztergai Euskara Mankomunitatearen plan estrategiko berriaren atarian.

##### • ITXASNE ETXANIZ, AITOR MONTES, IZASKUN ELEZGARAI,

##### MAISIE EDWARDS, ALWENA MORGAN ETA JON ZARATE >

Osasun arreta euskaraz jasotzeari buruzko pertzepzioen ebaluazioa EHUko Medikuntza graduaren (ikasleekin eginiko ikerketa pilotoa).

• **NAROA ANABITARTE** > Zer den (esaten) eta zer ez. Begiratu labur bat euskararen ideologiari.

## ESA-KO URTEGIAREN HANDITZEA

# Apurketaren mamua beti hor

Valentziako tanta hotzaren ondoren hondamendiaren itzala beste leku batzuetara ere hedatu da: zer gertatuko litzateke horrelako denborale erraldoi batek Esako urtegi handitua kolpatuko balu? Eutsiko ote lioke presak? Urak gainezka egingo ote luke? Galderak hor daude eta beldurrak ere bai, ez bailitzateke munduan lehertutako lehen presa izango.

 XABIER LETONA BITERI

**J**orge Pueyo Chunta Aragonesis-tako eta Sumarreko diputatuak eraman zuen gaia Espainiako Kongresura eta obra faraonikoari amaiera emateko eskatu zuen. Bel Bozqueta EH Bilduko diputatuak ere gaiaz galdegin zion Espainiako Gobernuako Trantsizio Ekologikoa eta Erronka Demokratikoaren Ministerioari, eta eskatu zion ere Esaren handitzea bertan behera uzteko. Ministerioaren erantzuna abenduaren amaierarekin etorri zen: urtegia segurua da, are eta segurtasun neurri handiagoak hartu dira azken urteetan eta lanak bukatzean aurreikusitako moduan beteko da urez.

Esako urtegiaren historia luzea da, 36ko Gerraren aurretik hasi ziren erai-kuntza lanak, 1928an, baina gerrarekin atzeratu egin ziren; 1959rako bukatu zen urtegia eta 1960an bete zen urez. 460 hektometro kubikoko (Hm<sup>3</sup>) edukiera du, eta Aragoiko Cinco Villas eremuan eta Nafarroako Bardeetan 80.000 hektarea lur ureztatzeke aurreikusi zen. Horrez gain, nagusiki, elektrizitatea sor-

tzeko eta Zaragozarako ur edangarrirako ere erabiltzen da.

2001ean urtegia handitzeko lanei ekin zitzaion, honako helburuekin: bat, ureztatze eremuak 48.000 hektarea handitzea, baina hori azkenean 10.000 bat hektareara murriztu da; bi, Zaragozarako ur edangarria bideratzea, hala ere, gaur egun ez omen da beharrezkoa, besteak beste La Lotetako urtegitik hartzen delako horretarako ura; hiru, elektrizitatea sortzea; eta lau, Aragoiko emaria kontrolatzea, bereziki denboraleetan. Horiek ofizialki aipatzen direnak. Itzalpean, aldiz, proiektuaren aurkakoek sarri aipatzen dute beste bat: etorkizuneari, Ebroren urak beste arto batzuetara eramateko aukera izatea.

2001ean ekin zitzaion handitze lanei eta, aurreikuspenen arabera, obrak 55 hilabetetan bukatuko ziren. 2025ean, ordea, handitzea amaitu gabe dago oraindik eta bukatzeko epe ofiziala 2027 bada ere, inork gutxik espero du horrela izatea. Zerk atzeratu du horrenbeste urtegiaren handitzea? Batez ere presari



eusten dioten magalen mugimenduek, eta bereziki eskuin magalarenak. Horrela, magalen ezegonkortasunari erantzuteko hasierako proiektuaren lau moldaketa idatzi dira, eta hastapeneko 113 milioi euroko aurrekontua dagoeneko 500 milioitik gorakoa da, Rio Aragón elkartearen esanetan. Gaur egun, 2016an onartutako laugarren moldaketa hori gauzatzen ari da, handitzearen lanen %82tik gora amaituta daude Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren (CHE) arabera, eta bitartean lanak ia geldi daude 2023ko udaz geroztik.



## ZANGOZA ETA ZARAGOZA ARRISKUAN

Cesar González Cebolledo ingeniari doktorea da eta Zaragozako Unibertsitateko Ingeniaritza Hidraulikoko irakaslea. Esa handitua apurtuko balitz, horrek hamar kilometrora dagoen Zangoza nola kolpatuko lukeen simulazioa egin zuen bideoz eta beste horrenbeste urtegitik ia 150 kilometrora dagoen Zaragozarekin (ikusgai dira Youtuben). Zangoza urpean geratuko litzateke apurketatik 23 minutura, ia erreakzio ahalmenik gabe. Zaragozara hamahiru ordutan heldu-

1950aren aurretik munduan eraikitako urtegien %2,2k izan zuten hondamendi mailako apurketaren bat, 45 urtegitik batek

ko litzateke ura eta bertako Pilar plazan bost metroko altuera hartuko luke, eta hiriko leku askotan hamar metro.

1787an euriteek eragindako uholdeek Zangoza txikitu zuten eta herria berregin behar izan zuten, baina toki berean eraiki zuten, horrek etorkizunari begira izan dezakeen arriskuarekin. Zaragozaren zati handi bat ere ibaiaren eremuetan eraiki da azken hamarkadetan, beste hainbat hiri eta herritan moduan. Horren ondorioak larriak izan dira Valentziako uholdeetan. Euriek eragindako hondamendien arrazoi nagusietako bat hori da eta gaur egun proiektu asko daude planifikatuta ibaien handitzeak har ditzakeen esparruetan, baina honda-

mendiak igarota, ezikusiarrena egiten da.

CHEtik eta gobernuetatik katastrofista izatea leporatu diote González doktoreari, baina hark ARGIAri adierazi dionez, Esako urtegiko magalen mugimenduak kontuan hartuta, arrisku hori egiazkoa da. Datuak ere ematen ditu horretarako: 1950aren aurretik munduan eraikitako urtegien %2,2k izan zuten hondamendi mailako apurketaren bat, hau da, 45 urtegitik batek. Geroago eraikitako urtegiaren istripu aukera jaitxi egin dela dio Gonzálezek, baina aldi berean, aldaketa klimatikoaren ondorioz, fenomeno meteorologikoak are indartsuagoak dira. “Zangozarako eszenatoki seguru bakarra –jarraitzen du irakasleak– urtegiaren handitze lanak bertan behera uztea da. Zero arriskurik ez dago, baina kasu honetan arriskua onargarria izan daitekeena baino handiago da. Irudikatu 50 eraikuntzetatik

bat erortzen dela, edo 50 autotatik bat lehertzen dela aktibo dirauen denboran... ez genuke onartuko. Eta horiek Urtegi Handien Nazioarteko Taldearen datuak dira, ez nireak”.


Vajonteko mamua ere atera da Gonzálezekin izandako telefonozko elkarrizketara. “Han ere ez zen ezer gertatu behar, eta begira”. Italiako Vajonteko urtegiaren hondamendia (1963) oso ezaguna da eta han ere geologo ugari lurren mugimenduen berri eman zuten behin eta berriro, eta eskatu zuten ura ez zedila maila batetik gora igaro. Arduradunek ez ikusiarrena egin zuten, mendi zati handi bat erori zen urtegiara eta presaren gaintik igaro zen olatu erraldoiak hainbat herri birrindu zituen ibaian behera. Ia 2.000 pertsona hil ziren.

Esako urtegiaren eraikuntzaz arduratu zen René Petit ingeniaria hala mintzo zen *Navarra Hoy* egunkariarentzat

1983an egindako elkarrizketan: “Esaren handitzeak beldur handia emango lida-ke. Gaur egungo urtegiak 60 metroko sakontasuna du, eta bere garaian izan genituen gure gorabeherak eutsiko ote zion edo ez. Halako obrekin kontu handia izan behar da, handia”. *Los malos sueños de René Petit* (René Petit-en amesgaiztoak) dokumentala ere aurkeztu zuen Eguzki Bideoak-ek 2014an.

Azken hamarkadetan beste aditu askok ere adierazi dute haien beldurra: Pedro Arrojo, Antonio Casas, Antonio Aretxabala, Valentín Ibarra, Tomás Morales, Cesar González... asko dira handitzea ez egiteko eskatu duten geologo eta ingeniariak. Horrelakoetan gertatzen den moduan, ostera, badira ere urtegiaren handitzea geldiarazteko moduko arazorik ikusten ez dutenak edota geogaitzak ingeniari-tza botikekin sendatu nahi dituztenak.

## Urtegiko eskuin hegalarren mugimenduak



- — — — Azpiko apurketaren azalera
- Apurketa nagusiaren azalera (grisean)
- Ingelesaren irristatzea
- Bestelako mugimenduak

**Ezegonkortasuna.** Mapak 2019ko egoera jasotzen du. 2021eko behaketen arabera, gehien mugitu zen tokian hegala 1,4 milimetro mugitu zen urtean. Mugimendurik handienak 2013an eman ziren, urte osoan 30 zentimetrarainokoak izan ziren. Orduan, 1 alerta egoera finkatu zen Zangozan. 2019an arrakalak agertu ziren berriz, euri jasak izan eta gero. 2022an CHEk adierazi zuen magalak ez zuela mugimendu esanguratsurik.

### Masa handi bat zatituta

**AZPIKO APURKETAREN AZALERA (AAA).** 100 metroko sakonera izan dezake hainbat gunetan. Hau da azalera handiena duena.

**APURKETA NAGUSIAREN AZALERA (ANA).** 30-35 metroko lur masei eragiten die. Eremu hau da gehien mugitzen dena eta aurrekoaren gainean dago. Berez, dena da mugitzen den masa handi bat (12 milioi m<sup>3</sup>-koa ia), baina aipatu bi apurketa horiek ditu.

**INGELESAREN IRRISTATZEA.** Hormigoizko presatik gora dago lur eremu hori –marra gorrian– eta gehienez 30 metroko sakonera du. Ezagutzen den mugimendu zaharrena da (1928koa) eta urtegia hustu eta betetzean aktibatzen da.

### Copernicus behatzailea

2023tik aurrera Europar Batasunak Lurra behatzeko duen Copernicus programaren datuak ere azter daitezke eta horiek ere berresten dute Esako urtegiko hegala mugitu egiten direla. Rio Aragón elkarteak eman zituen Copernicuseko datuen berri, eta horien arabera, mugimenduak lur azalean eta sakonera handian gertatzen dira; azken horiek 100 metroko sakoneraraino jazo litezke. Orain arte, adituek menpekotasun handia izan dute CHEek emandako datuekin, eta aurrerantzean mugimenduak beren kabuz behatu ahal izango dituzte, maila batean bederen.

## “BUKATUKO DA ETA BETEKO DA”

2024ko abenduaren 30ean sinatutako oharrean Espainiako Trantsizio Gobernuak Bel Pozueta diputatuari erantzun zionez, 2021eko Presen Segurtasunerako Gida Teknikoen aholkuen arabera eraikitzen ari da Esako gainezkabidea, eta beraz, ez dago eragozpenik lanak amaitu ondoren urtegia guztiz betetzeko. Gaur egungo urtegiak 460 Hm<sup>3</sup> ditu eta handituak 1.079 Hm<sup>3</sup> izango lituzke. Hasierako proiektuak 1.500 Hm<sup>3</sup> aurreikusten zituen, eta orduan ere ez zegoen arazorik, baina geroago lur-dantzak hasi zirenean CHEK ur kopuruaren herena kendu zion badaezpada.

Ministerioaren oharrak, halaber, erreferentzia egiten zion Zangozako Udalak Valentín Ibarra eta Tomás Morales geologoen egindako ikerketari, haiek baloratutako txostenei jarraipena egingo zietela esanda. 2021ean idatzitako txostenean, bi adituok Espainiako Ingeniarien Elkargoak eskuineko magalaz burututako azterketa aztertu zuten Zangozako Udalaren enkarguz. Ikerketan zioten magalak ezegonkorak direla eta, beraz, Esaren handitzea ez gauzatzea gomendatzen zuten.

Espainiako Gobernuak gainezkabideak –urtegitik ura ateratzeko ubideak– bereziki aipatzen ditu bere erantzunean eta horretan aditua den González Cebolledori galdetu diogu gaiaz: “Gainezkabidea 2021eko arauak betez diseinatu dela dio, baina hori ez da posible 2003an egin ziren aldaketak 2008an gauzatu ziren eta. Agian, orain berritzen ari diren gainezkabideak bai egingo ziren 2021eko arauari begira. Horrez aparte, urtegien gida teknikoek diote presari eusten dioten hegalek egonkorak izan behar direla, eta kasu honetan hori ez dago bermatuta”.

Gainezkabideari dagokionez, Gonzalezen aburuz gida teknikoek diote lurrez eraikitako hau moduko presek ezin dituztela izan tunel gisako gainezkabideak bakarrik, lamina libreko gainezkabideak ere –“txirrista erraldoi modukoak direnak”– behar dituztela, horiek malguagoak direlako eta urtegitik ur gehiago atera dezaketelako. “Material solteen gisako presa hauen arriskua da ura ginetik pasatzea, urak presa higatu egiten duelako, horregatik proiektu honetan gainezkabideak oso garrantzitsuak dira”.

González-en ustez, presaren diseinua motz geratzen da Valentziakoa moduko tanta hotz baten aurrean. “Handitze lanetarako 1976-1995ean urtegiak jasotako ur kopuruaren erreferentziak erabili dira, baina garai hura lehorra izan zen, ohikoa baino ur emari txikiagokoa. 30 urte geroagoko fenomeno klimatikoek ur kopuru askoz handiagoak dakartzate”.

# Eskuin hegala

## 2012 eta 2022-ko argazkiak



2012



2022

**Urbanizazioen eraistea.** Hamarkada bat dago bi irudien artean eta denbora horretan goiko irudian ikusten diren urbanizazioak (104 etxebizitza) desagertu dira, Lasaitasuna (ezkerrean) eta El Mirador de Yesa. 2013ko eskuin hegaleko mugimenduen ondorioz izan zen: orduan urbanizazioa hustu zen, kalte-ordainak ordaindu ziren eta 2020rako etxe guztiak bota zituzten.

**Magala arintzeko.** Lur irristaketa garrantzitsuenak elkarren gainean zamalkatzen dira, bata bestearen gainean dauden bi koi-lara modukoak dira. Honako lur kopuruak eragiten diete: 237.418 m<sup>2</sup>-ko azalera, 117 metroko sakonera eta ia 12 milioi m<sup>3</sup>-ko bolumena. Kalkulatzen da magalaren zama arintzeko 1.500.00 m<sup>3</sup> material bolumena erretiratu zaizkiola. Uste da horrek ere eragiten dituela mugimenduak.

**ITURRIA:** *Geología y Ciudad. La historia constructiva contada por los suelos y las rocas de Pamplona.* Antonio Aretxabala Díez. (Geología eta hiria. Historia konstruktiboa, Iruñeko lur eta arrokek kontatua).

## 2006, 2007 ETA 2013KO LUR MUGIMENDUAK

Adituak magalen ezegonkortasunaz eta arriskuez ari direnean ez dabilta airean eraikitako gazteluez, jadanik izandako gertaera ugarietz baizik. Asko eta oso aspaldikoak dira lerratze eta irristadak, Esako urtegia eraikitzen hasi zirenekoak. Garai berriagoetara etorrira, mugimendu ugarien artean urtegiko ezkerreko magaleko 2006ko eta 2007ko mugimenduak nabarmendu behar dira. Edo 2012an eta 2013an eskumako magalean izandakoak. Mugimendu horiei aurre egiteko hasierako proiektua lau bider aldatu da, eta horien ondorioz, hasierako 113 milioi euroko aurrekontua boskoiztu egin da. Ez dago aurrekontuen bilakaeraren egungo datu zehatzik, baina 2017an 430 milioi eurokoak ziren urtegiko obretan gastatutako diruak, eta harrezkero lan handiak egin dira, bai magalen egonkortasunari begira, bai horien ondorioz inguruetan –errepide, zubi...– zeharka egin behar izandako lanetan. Rio Aragón elkarteak aurrekontuaren jarraipen zehatza egingen du sarean duen orrialde batean.

Mugimendurik esanguratsuenak aipatzeagatik, hor dira 2006an eta 2007an ezkerreko hegalean izandakoak, hurrenez hurren, Mérida mendikoa eta La Refayakoa. Bien artean 60 milioi m<sup>3</sup>-ko lur kopuru hartu zituzten. 2007an Espainiako Ingurumen Ministerioak obrak gelditu eta azterketa geologikoak agindu zituen. 2008an eta 2012an izan ziren beste mugimendu txikiago batzuk eta arrakalak ere agertu ziren. Oro har, mugimenduek jarraitzen dute magal horretan, baina monitorizatuta ez daudenez, ez da haiei buruz askorik hitz egingen.

Ondorengo arazo gehienak eskuineko hegalak eman ditu, bereziki 2012ko eta 2013ko eurite handien ondoren. 2012ko euriteetan Esan 294 litro ur jaso ziren m<sup>2</sup>-ko eta horrek lur mugimenduak ekarri zituen berez ezegonkorrak ziren lurretara. 2013ko urtarrilak ere euri jasa handia utzi zuen –234 l/m<sup>2</sup>-ko–, eta horrek aurreko urrian sortutako lurren dantza areagotu zuen. CHEk onartu zuen leku batzuetan lur mugimenduak astean lau zentimetrokoak izan zirela eta hilabete batean 20 zentimetro ere neurtu zutela. Hartutako neurriak zorrotzak izan ziren: XXI. mendeko lehen hamarkadan eskuineko hegal horretan eraikitako Lasaitasuna eta El Mirador de Yesa urbanizazioak



Lehen planoan ikusten da hormigoiko presa zaharra, urarekin kontaktuan, eta bigarrean handitze lanetarako materialez eraikitakoa. / ITURRIA: CHE

## Etxeak bota zituztenetik, urtegiaren handitzearen aurkako askok azpimarratu dute ustezko kontraesana: magala ez zen segurua urbanizazioetarako, baina bada urtegia handitzeko

–104 etxebizitza– hustu zituzten eta ondorengo urteetan bota. Bizilagunei kalte-ordainak eman zitzaizkien. Orduz geroztik, urtegiaren handitzearen aurkako askok azpimarratu dute ustezko kontraesana: magala ez zen segurua urbanizazioetarako, baina bada urtegia handitzeko.

Valentziako tanta hotzean, oro har, 300 l/m<sup>2</sup>-ko bota zuen, baina herri batzuetan askoz gehiago, esate baterako Chivan (445 l/m<sup>2</sup>-ko) eta Turisen (630 l/m<sup>2</sup>-ko), eta horietako asko oso ordu gutxitan. Esako urtegiak halako ur kopuru bati eusteko izango lituzkeen zailtasunez ere ari zen González doktorea hondamendi arriskua aipatzean. Leireko mendilerrotik jasotzen duen ura ei da eskuineko magalaren berez-

ko ezegonkortasunaren zioetakoa, eta euriteek eta urtegiaren handitzeak ur gehiago dakarte berez irristakorra den eremura. Horregatik, datozen urteetan urtegia betetzen bada, arrisku handiko uneak biziko dira Gonzálezen arabera, “magalek lehen une horietan nozitzen baitute gehien egoera berria”.

Azken hamarkadan, eskuineko lur sail horietatik milaka tona material erretiratu da magalari pisua kentzeko eta lurra lerratzeko arriskua saihesteko. Alabaina, Antonio Aretxalaba geologoak urtegiari buruz egindako lanetan argi dio magala berez dela ezegonkorra, eta ez dagoela egonkortzerik. Azken finean, azken hamar urteetako adituen azterketa lan guztiak bat datoz horretan: magala ezegonkorra da eta mugitzen da. Baina zenbateraino? Hortxe dago auziaren iltzea, batzuentzat gutxi edo oso gutxi, besteentzat asko edota gehiegi. Batzuentzat mugimenduak egonkortu dira, besteentzat egonkortasun mailak ez du baimentzat urtegia handitzea. Izandako debate horren guztiaren ondorioz, Espainiako Gobernuak eta CHEk adierazi dute aurrerantzean behaketaren metodoaren bidez egingo dela lan. Hau da, eremua tresneria egokiarekin behatuko dutela eta, horren arabera moldatuko dituztela eraikuntza lanak. “Baina lan molde horrek ez du balio magal ezegonkor baterako –dio Gonzálezek–. Nola egingen zaio aurre urtegiari bat-batean eroritako mendi zatiari? Ezin da”.



Materialez eraikitako presaren eraikuntza hiru une desberdinetan. / ARGAZKIAK: CHE

## Segurtasunari buruzko azken azterketa lanak

2001ean urtegia handitzeko lanak hasi zirenetik 30 azterlan baino gehiago egin dira. Hemen azken hamarkadan egindakoak aipatzen dira, batez ere eskuineko magalaren segurtasunari lotutakoak, hor egon baitira azken urteetako arazo esanguratsuenak.

### Nafarroako Gobernua (2016)

2015eko abenduan Uxue Barkosen gobernuan Departamentuen Arteko Talde Tekniko bat sortu zen, lau kide independentez osatua. 2016an aurkeztu zituzten haien ondorioak Nafarroako Legebiltzarrean, eta beren ustez, faktore naturalek eta teknikoek eraginda, zalantza handiak ziren urtegiaren segurtasunean. Segurtasuna guztiz bermatu arte, lanak geldiaraztea gomendatu zuten.

### Nafarroako Gobernua (Geoconsult, 2019)

Foru gobernua 2018an egin zion enkargua Geoconsult enpresari eta hark 2019an aurkeztu zituen ondorioak. Magala oreka hertsian zegoela baietsi zuen, hilean bi milimetro baino gutxiago mugitzen zela, eta mugimendu horiek ez zutela baldintzatzen urtegiaren handitzearen bideragarri-

tasuna. Magalaren barneko ura hobeto drainatzeko, magalaren goiko aldea egonkortzeko eta zeuden mugimendu txikiak gutxitzeko neurriak hartzea gomendatzen zuen. Halaber, segurtasuna handitzeko, gehiago eta etengabe behatu beharra ere aipatzen zuen.

### FNCA Fundazioa (2020ko urria)

Uraren Kultura Berria Fundazioak (FNCA gaztelaniazko sigletan) Esako urtegiari buruzko txostena eskatu zion Antonio Casas eta Antonio Aretxabala geologoei. Horien esanetan, 2013an segurtasun faktoreak minimora erori ziren, eta bai mendi-hegalaren berezko mugimenduengatik, bai urtegi lanengatik, mugimenduak berraktibatu egin ziren. Adituon arabera, "lerratu edo irristatzen diren lurren bolumena hain da handia, zeren eta azaleko edozein jarduerak eragin txikia izango du egoeraren hobekuntzan edo okerragotzean".

### Espaniako Gobernua (2021)

2018an Espainiako Gobernuak azterketa eskatu zion Espainiako Bide, Ubi-de eta Portuen Ingeniarien Elkargoari. Lau urte geroago aurkeztu zituen bere ondorioak erakunde ofizialak. Honek

ere arreta berezia jarri zion eskuineko hegalarari. Mugimenduak badaudela dio txostenak, baina magala nahiko egonkorra dela presari eusteko. Hori bai, aholkatzen du protokolo oso zehatza eta zaindua bideratu beharra urtegiaren betetze eta huste lanetan. Aldi berean, aurrerantzean, behaketa metodoa erabili behar dela finkatzen du, horrela urtegiaren edo magalean ikusten diren aldaketan arabera proiektua ere egokitzen joateko.

### Zangozako Udala (2023)

Ingeniarien Elkargoaren txostena hain izan zen konplexua, Zangozako Udalak hura aztertzeke eskaera egin ziola Ingeotys SL enpresari. Valentin Ibarra eta Tomás Morales geologoak arduratu ziren azterlanaz. Hien ikuspegia alor askotan da kritikoa Ingeniarien Elkargoaren lanarekin eta amaieran honako ikuspegia luzatzen dio Zangozako Udalari: eskuineko magalean hobekuntzak egin dira, baina desplazamenduak dauden bitartean, eta ikusita horien jarraipena egiteko dauden muga esanguratsuak, Esako urtegia ez handitzea gomendatzen da. ●

## IPAR EUSKAL HERRIKO LABORANTZA

# EHLGk hogeiei urte beteko dituela, egitura publikorik ez zerumugan

Euskal Herriko Laborantza Ganbera elkar- tearen hogeiei urteak ospatu zituzten as- teburuan Ainhize-Monjolosen. 2005eko urtarrilaren 15 hartan sortu zuten Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoako laborantzaren garapena –hori bai, iraunkorra eta herri- koia izan nahi duena– sustatzeko tresna, noizbait egitura publiko gisa funtziona- tzeko itxaropenarekin. Bi hamarkada pasa

dira, EHLG erreferentzia bat da, baina izaera publikoa duen egiturarik ez du lortu Ipar Euskal Herriak. Beharrak eta aldarriak hor segitzen dute. 2017an sorturiko Euskal Hi- rigune Elkargoa alde kokaturik, esperantza baldin bazen ere, badirudi berriz tiraderan sarturik dutela tresna. Izaera publikoa lu- keen egitura bat lortzea nekeza duelako aitorpenik ez duen lurralde batek.

### JENOFA BERHOKOIRIGOIN

**D**uela hogeiei urte, urtarrilaren 15 batez batu ziren mila lagun Ainhize-Monjolosen (Baxenaba- rre), EHLG Euskal Herriko Labo- rantza Ganberaren sortzearen kari. Alta, egun batzuk lehenago Pirinio Atlantikoetako prefetak gutuna bidali zien ELB sindikatuari, Ipar Euskal He- rriko auzapezei, Pirineo Atlantikoetako Kontseilu Nagusiko lehendakariari eta legebiltzarkideei: EHLGren "izaera, hel- buruak eta antolaketa" legez kanpokoak direla erranik, egituraren sortzeko bi- dean gibel egitea galdetzen zien. Sortze ekitaldian ez agertzeko manua ere bide- ratzen zien hautetsiei.

Hortik hilabete batzuetara, ekainaren 8an jarri zuen salaketa prefetak, eta lau urte geroago hasiko zituzten EHLGren eta elkarteko presidente izandako Mixel Berhokoirigoin zenaren kontrako epaike- tak. *Laborantza ganbera* izena erabiltzea debekatua zela zioen Frantziako Esta-

tuaren ordezkariak, izen hori erakunde publiko batena zela argudiatu, baita departamendu mailako laborantza gan- beraren lekua hartuko zuelakoan legez kanpoko zela ere. Prefetaren ondoan parte zibil kokatu zen FDSEA sindikatu- ren eskuetan den departamenduko la- borantza ganbera bera. Behin betiko edo aldi baterako (bost urte gehienez) legez kanporatzeko eta Berhokoirigoin urte ba- tez preso sartzeko arriskua zegoen. Bost urtez iraun zuen auzibideak, EHLGren aldeko epaiari helegitea jartzen ziolako aldi oro prokuradoreak. Azkenean, etorri zitzaizen behin betiko aitortza 2010eko maiatzaren 6an: EHLGren absoluzio epaia berretsi egin zuen Paueko Auzitegiak. "Epaia berresteak dimentsio historikoa du Euskal Herriarentzat, baita soziala eta lurraldeari lotua ere", adierazi zuen Berhokoirigoinek epaia jakin zuenean.

Dorpea izan zitzaizen auziaren garaia –auzien garaia, hobeki erranda, EHLG

diruz laguntzea erabaki zuten Herriko Etxeak ere auziperatu zituztelako-. Oro- tara hogeita zazpi zituzten epaitu, elkar- tearen egoera finantzarioa kili-kolo utzi- ta eta eguneroko lanean trabak jarrita. Baina, balioa atera zioten: "Izugarrizko konplikazioak ekarri zizkigun, baina izu- garrizko indarra eman zien egiturari eta proiektuari", oroitzen du Iker Elosemi elkarteko koordinatzaile orokorrak.

Babes sozial sendo eta zabal baten gainean eraikitakoa delako EHLG. Ba- tetik eta inportanteena, laborarien sos- tengua. Urte luzeak eman zituen ELB sindikatuak Ipar Euskal Herriarentzat laborantza ganbera bat aldarrikatzen eta aldarri hori lehen lerroan jarrita burutu zituen 2001eko departamendu mailako laborantza egiturarako hautes- kundeak: Ipar Euskal Herrian garaile kokatuz gero, egitura publiko hori sor- tuko zutela argi utzi zuten. Kanpaina beroa eraman zuten eta lehen aldikoz





GALZKA IROZ

Horrelakorik ez egiteko manua bideratu bazien ere Pirinio Atantikoetako prefetak, 2005eko urtarrilaren 15ean sortu zuten Euskal Herriko Laborantza Ganbera elkarte. Egoitza Ainhize-Monjolosen du, Baxenabarren.

kokatu ziren Ipar Euskal Herrian garai- le. Adostasun batera heltzeko urratsa proposatu zieten beste behin departamenduko ganbera kontrolatzen zuten FDSEAkoei, baina ezetza borobila jaso zuten Pauetik.

Hori horrela, departamendu mailan irabazitako aulkiak hutsik utzi eta tresna beren baitatik sortzeko desafioari lotuko zitzaizkion. Aldarri instituzionala bezainbat, laborarien errealitateari erantzuteko behar gorria bazelako. Lekuko laborariak laguntzea, kalitatea eta ongizatea lehenesten duen nekazaritza eredu bat sustatzea, gazteen instalazioa eta etxalde ttipien geroa bermatzea, lurralde proiektu orokorra- goan laborantza iraunkorra eta herri-koia txertatzea... behar andana zituzten identifikaturik. Horretarako sortu zuten noizbait ofiziala izatea xede zuen laborantza ganbera alternatibo hori.

Hautetsien eta oro har herritarren babesa ere bazuten: Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoako 158 auzapezetatik 110 agertu ziren egituratze horren sortzearen alde eta auzien garaietan 7.000 herritarren eta 1.000 hautetsiren atxikimendua errezibitu zuten.

Orduz geroztik hogeitaz pasa dira, eta laborantza herrikoia eta iraunkor- raren sustatzaile nagusia da EHLG. "Erre-ferentzia bat bilakatu gara, laborari-entzat, hautetsientzat eta herritarrentzat. Eramana izan den lanaren emaitza da, jendea kontent da EHLGn jasotako zerbitzuekin", dio Elosegik.

2005az geroztik, 2.870 laborari ezberdin dira Ainhize-Monjolo setik pasa -2024an 650 bat dituzte lagundu, horietan 89 lehen aldikoz agerturikoak-. "Beti gora doa laguntzen ditugun laborarien kopurua. Ikusirik laborari kopurua ttipituz doala, argi

gelditzen da lekua hartzen ari garela", dio Elosegik.

Bistan da, EHLG ez da laborantza iraunkorraren arloan dabilen egitura bakarra; hori dira ere Arrapitz federazioaren baitan batzen diren egiturak -bakar batzuk aipatzearen, laborantza ekologikoaren sustatzaile den BLE elkarte, laborariak kudeaketan eta kontabilitatean laguntzen dituen AFOG, Lurzaindia eta laborari izan nahi dutenen proiektua abiarazteko laguntzeko Trebatu egitura-. Baina salbuespenak salbuespen, guziak datoz ELBren baitako laborarien ideietatik eta ausardiatik, eta ez departamenduko ganberako bulegetatik.

Urtero lez, hogeitaz pasa dira, horietan 89 lehen aldikoz agerturikoak-. "Beti gora doa laguntzen ditugun laborarien kopurua. Ikusirik laborari kopurua ttipituz doala, argi



EHLG-K-UTZIA

Elkarte sortu eta hilabete batzuetara jarri zuen EHLGren aurkako salaketa Pirineo Atlantikoetako prefetak. Azkenean, EHLGren alde egin zuen epaileak. "Epaia dimensio historikoa du Euskal Herriarentzat, baita soziala eta lurraldeari lotua ere", adierazi zuen auziperatua zen Mixel Berhokoirgoien zenak.

### EGITURA PUBLIKOA, BETI ESKAS

Hogei langile eta 1.710.000 euroko aurrekontua duen egitura eraginkorra izanik ere, EHLG elkarte bat da. Horregatik, oraindik ere egitura publiko bat aldarrikatzen segitzen dute ELBko laborariek. Horien artean da Maritxu Lopepe, urtarril honetan diren departamenduko laborantza ganberako hauteskundearen kari ELBren zerrendan dena: "Ikusirik laborariek dituzten zailtasunak, lansari duina segurtatzea da gaur egungo lehenetasuna. Guk diogu hori lortzeko bide ezberdinak badirela, eta horien artean dugu tresnak gutarik hurbil ukaitearena. Horregatik dugu begi onez ikusten Ipar Euskal Herriarentzako egitura bat ukaitearena". Adibide gisa jartzen du

iaz Euskal Hirigune Elkargoak etxaldea ttipiei begira bozkaturiko dirulaguntzarena.

Ofizialki, 2017ko biltzar nagusian plazaratu zuen Laborantza eta Elikaduraren Bulego Publikoaren eskaera EHLGk. Urte horretan sortu zen Euskal Hirigune Elkargoa eta laborantzaren eskumena harturik, sekulan baino egingarriagoa bihurtzen zitzaien. Egituratzeko horren alde agerturik, ikerketa juridiko bat bideratu zuen hirigune elkargoak 2020an, zuzenbideak dakartzen aukerak baita mugak ere aztertzeke asmoz. "Ez dugu zalantzan jartzen [departamenduko] laborantza ganbera. Baina departamenduaren erdia, hau da, 158 herri ordezkatzeko duen egitura gara, eta laborantza

arloko eskumenak ditugu. Politika hori gauzatu ahal izateko tresna juridiko bat beharrezkoa dugu", adierazi zuen hirigune elkargoko presidente Jean- René Etchegarayk, urte horretako EHLGren biltzar nagusian.

Parean, horrelakorik ez dute nahi FDSEako ordezkariak. Diotenez, "doblai" bat litzateke, departamenduko laborantza ganberak Donapaleun (Baxenabarre) duen egoitzatik erantzuten dietelako lekuko laborarien beharrei. Argiki kokatu dira kontra. Alta, 2017az geroztik, lerroak mugitu dira. Finean, ez litzateke egitura publiko bat, elkarte bat baizik. Baina berdin dio: kontra dira. Iazko azaroaren 12an aurkeztu zituzten lehen aldiz elkartearen estatutuak

**ARABAKO BERTSO KUADRILLA ARTEKO A** 2025

**KUADRILLAKO BERTSO EGUNAK**

**14 ekimen, Arabako eskualde denetan**

**URTARRILAK 22 - APIRILAK 5**

**4 FINLERDI eTA FINLA**

14 talde, 76 bertsolari, 17 epaile, 21 gai-jartzaile, eta beste 11 laguntzaile

www.bertsozale.eus/araba

araba álava, URS, LABORAL, Vitaf, urteko, artepan, ARGIA

## JEAN-RENÉ ETCHEGARAY EHLG-REN ABOKATU IZANDAKOA

# “Pragmatikoa izanda, elkarte izaera da daukagun aukera bakarra”



**G**aur egun Baionako auzapez izateaz gain, Euskal Hirigune Elkargoko presidente ere da Jean-René Etchegaray. EHLGren lehen urteetan hautetsi bazen ere, abokatu ogibidean zebilen. Bera izan zen EHLGren abokatueteriko bat. Euskal Hirigune Elkargoak sortzeko duen Laborantza eta Elikadura Bulegoaz aritu gara solasean.

### **Ipar Euskal Herrirako Elikadura eta Laborantza Bulegoa sortu nahian dabil Euskal Hirigune Elkargoa. Haatik, ez du estatutu publikoa ukanen.**

Egia da duela zenbait urte egitura publiko gisa irudikatzen genuela, baina gaur egungo proposamenak elkarte izaera du. Oraingoz horrela eta gero gerokoak. Baina, hori ere ez du begi onez ikusten [departamenduko] laborantza ganberak, edo behintzat duda anitz ditu. Elkargoko Laborantza eta elikadura batzordearen baitan eraman behar da aitzina gaia. Laborantzaren sektoreko eragile guztiekin ere hitz egin behar dugu. 2025 hasieran sortzea da xedea. Ez dizut ezer ikasiko erranez laborantza betidanik izan dela zatiketa gai bat departamendu honetan. Batzuek diote bulego hori dobloi bat litzatekeela, departamenduko ganberaren Euskal Herriko adarrak betetzen duelako zerbitzua. Ez naiz horrekin ados. Laborantzaren eskumena du Euskal Hirigune Elkargoak, baita laborantza lurraren gaiarena ere. Horrelako eskuhartze politikorik ez da Biarnon. Euskal Herri mailan gai horiei buruzko beste batzargune batzuk ere badira, eta hori ez da traba bat. Eragile guztien arteko kontzertazioaren bidetik egin behar dugu aitzina. Ez gatoz konkurrentzia egitera departamenduko laborantza ganberari, EHLGri ez eta inori. Elkarte izaerak malgutasuna eta ukaezina

izatea dakartza, berez elkarte bat sortzearena eskubide bat delako.

### **Baina zergatik baztertu duzue izaera publikoarena?**

Berez ez da baztertua. Ez da gehiago gaur egungo aipagaietan. Sinpleki errateko, ez genuke gauzatzen ahalko. Zailtasun juridikoak hor ditugu, eta nire irudiko, hobe aitzinetik kontuan hartzea. Frogatu ditzagun gure gaitasunak elkarte gisa; hobe da, jakinik aldarri instituzionalak pareta bat lukeela parean. Batzuen irudiko etapa bat izanen da. Ageriko da, dena dela, ezinbestekoa dugun etapa da.

### **2020an egingarri ikusten zenuen estatutu publikoarena. Ezinean, legeak dakarren desberdintzerako eskubidea erabiltzea zenuen xede.**

Diozuna osoki egia da, eta baliatuko dut atzera begira jartzeko. 2020an [Lurralde kohesiorako ministro] Jacqueline Gouraultek aurkezturiko 3DS deituriko lege proposamenak zekarren desberdintzerako eskubide hori. Ipar Euskal Herri-rako hainbat gaienez (ingurumena, etxebizitza, laborantza...) interesgarria iruditzen zitzaidan, zuzenbide komuna saihesteko eskubidea zekarrelako. Esperantza baguenen, baina azkenean lege horrek ez ditu espero genituen emaitzak ekarri. Argiki diot, atsekabe handia izan da bozketa hori. Hori horrela, pragmatikoa izan nahi badugu, elkarte estatutua da gelditzen zaigun bakarra. Hori inork ezin digu debekatu, Konstituzioak dakarren eskubide bat delako. Funtsean, horregatik zuen auzia irabazi EHLGk. Publikoa izatea litzateke ideala, baina gaur egun, legeak ez digu hori permititzen.

### **Duela 20 urte gauza bera zen. Badakizu, EHLGren abokatua**

### **izan zinelako. Aitzinatzekotan, ausardiari eta irudimenari esker eginen da aitzina.**

Arrazoimena eta determinazioa, biak behar dira aitzina egiteko. Arrazoimena, urratsez urrats aitzina egin behar delako, beti ere kontsentsua iparrorratz harturik; eta horrez gain, auzibideak egon daitezkeelako. Determinazioa ere: desadostasunean bagara gogor eutsi behar zaiolako, preferentziaz bide legegaitatik, besterik ezin dizut erran nik.

Baina uste dut berriz ere militantzari lotu beharko garela, instituzionalak gauzak mugiarazteko. Ipar Euskal Herriaren egituraketa instituzionala ez da erabat borobildua, benetan behar duen instituzioa ez du oraindik lortu. Horrek balio du egitura instituzionalarentzat, baina baita dituen politika publikoentzat ere. Etapa batean gara, ez gara helmugara helduak.

### **EHLGk 20 urte betetzen ditu. Hirigune Elkargoko presidente gisa, zer nolako balorapena egiten duzu?**

Uste dut Euskal Hirigune Elkargoa ez genuela sortuko [Ipar] Euskal Herriko laborantzaren aitortza instituzionalaren aldeko borroka ez balute eraman –ez naiz alde juridikoaz ari, alde politikoaz baizik–. Hasteko, ukandako indar politiko hori ez genuen ukaneen. Euskal Herriaren historia politiko garaikidean lekua badu EHLGk.

Balio handikoa da EHLGren eraman dugun elkarlana, konfiantzazko harremana daukagu. Euskal Herriko laborantzaren berezitasuna lehenesten du –eredu iraunkorra, ingurumenaren babesa, kontsumitzaileekin harremana...–. Ez diot departamenduko ganberak ez duenik hori egiten, baina, nahi edo ez, EHLGk dakartza ideia handiak, eta horiei esker gabiltza pauso bat aitzinago.



Laborarien partetik, baita kontsumitzaileen zein hautetsien partetik ere, babes handia jasotzen du elkarteak. Apirilaren 5ean ospatuko dituzte hogei urteak Heletan.

hirigune elkargoko laborantza eta elikadura batzordean. Laborantza arloko eragile guziekin bildu eta 2025 hasieran sortu nahiko luke Etchegarayk.

Xeheki landurik dute egituratze hori. Bere baitan lituzke kolektibitate publikoak (hirigune elkargoa, departamendua, eskualdea eta estatua-), lehen sektoreko egiturak (departamenduko laborantza ganbera eta EHLG hein berean jarrita), laborantzaren garapenaz arduratzen diren egiturak (laborarien sindikatuak, Arrapitz federazioa, sormarkak, kooperatibak, mendietako sindikatuak...) eta jendarte zibila (ingurumenaren aldeko egiturak, langile sindikatuak, kontsumitzaileak, Euskal Herriko Garapen Kontseilua...). Laborantza eta elikadura politikari buruzko eztabaida eta proposamen gune izatea luke xede.

## 2025: BOZKETA URTEA

Anartean, departamenduko laborantza ganberako hauteskundeetan bozkatzerara deituak dira Lapurdi, Baxenabarre eta Zuberoako laborariak. Sei urte guziz egiten dira, eta aurtengoak urtarrilaren 15etik 31ra iragaitekoak dira. ELB, FDSEA/JA eta CR Coordination Rural

sindikatuaren artean hautatu beharko dute. Hiru sindikatu, hiru nekazaritza eredu: laborantza herrikoia eta iraukorra ELBk, azken hamarkadetan zabalduko agroindustriarena FDSEAK, eta guziari kritiko izatetik sortu den eta tarteka eskuin muturrerako irakurketa erraza duen CR. Gehiengoa lortzearekin, laborantza ganberaren giderrak esku artean hartu eta departamendu mailako laborantza politika bideratzen ariko da irabazlea. FDSEA da boterean departamendu mailan, eta Frantziako Estatuko departamendu kasik guzietan: 84 departamendu ditu, 3 CRk eta bakarra ELB bere baitan duen Confederation Paysannek. Beste behin ez da sorpresarik espero, ELB Ipar Euskal Herrian eta Confederation Paysanne Biarnon aurkezten direnez ezinezkoa dutelako garaipena. Parte-hartzea %54,2koa izan zen 2019an, eta Ipar Euskal Herriko botoen %54 inguru jaso bazuen ere ELBk, departamendu mailan bigarren kokatu zen, %24,2 eginik.

Bi zentzutan dute berebiziko garrantzia hauteskunde horiek. Batetik, ikusiko da laborariak pairaturiko krisi sakonak zertara bideratuko dituen: be-

tidanik boterean den FDSEA zigortzeko hauteskundeak izanen dira ala berdinez azkar aterako da agroindustria? Parean alternatiba diren ELB eta Confederation Paysanne indarturik aterako dira? Zer nolako emaitzak lortuko ditu krisi horretatik bere zukuera atera nahian dabilen CR sindikatu gazteak?

Bestetik, Ipar Euskal Herri mailako emaitzek beren inportantzia dute: ELBk segituko ote du lehen indarra izaten? Ipar Euskal Herriko egitura publikoaren lorpenera heltzeko emaitza horiek garrantzia handia dute. "Auzi politikotzat" jotzen dute FDSEAKoek aldarria, borroka abertzaleari lotuz afera. Laborantzaren errealitateari ekartzen du, ordea, eztabaida ELBk: lehen sektorea erabat ezberdina da Ipar Euskal Herrian eta Biarnon -etxalde ttipiak eta mendiko laborantza nagusi gurean eta etxalde handiak, zerealgintza eta monokultura Biarnon-. Horregatik du bere errealitateari erantzunen liokeen egitura propioa behar Ipar Euskal Herriak. Horregatik sortu zuten ELB 1982an eta horregatik nahiko lukete egitura publiko hori, 2005ean bezala 2025ean ere. ●

# Haziak

280 orrialde, 211 argazki

Zergatik eta nola egin zureak

Marc Badal eta Miguel Arribas *Kelo*

Liburua **26€**



# Erizain indigenek herri zapalduentzat ekitatezko osasun zerbitzua aldarrikatu dute

Garbiñe Elizegi baztandarra erizaina da. Abenduan, Zeelanda Berrian egin duten *Osasun Ekitaterako Erizaintza Indigenari buruzko Ikerketa* izenburuko bilkuran hartu du parte. Bere tesia aurkeztu du: *Euskal emakumeek eta genero ez-normatiboek Euskal Herrian osasungintzan izan dituzten esperientziak aztertzen*. Hiru eguneko biltzarrean erizainek aldarrikatu dute hizkuntzaren eta kulturaren gaineko zapalkuntza lehen lerroa ekartzea, eta eskatu diete erakunde publikoei osasun sistemetan jatorrizko herrietako pazienteak ekitatez artatzeko mekanismoak jartzea.

 ONINTZA IRURETA AZKUNE  THE BORGEN PROJECT

**G**arbiñe Elizegiri oso interesgarria eta aberasgarria iruditu zaio Zeelanda Berriko bilkura. Lehengo aldia zuen biltzar horretan parte hartzen zuela. Bi urtez behin egiten duten bilkura erizainek antolatzen dute eta batez ere erizainek egiten dituzte hitzartzeak. Jatorrizko herrietako erizainak dira eta segurtasun kulturala deitzen dioten kontzeptua lantzen eta aldarrikatzen dute.

## MAORIEN EKARPENA: SEGURTASUN KULTURALA OSASUN SISTEMAN

Kontzeptu horren arabera, beharrezkoa da hizkuntzaren eta kulturaren zapalkuntzaz hitz egiterakoan testuinguru historikoa begiratzea eta jatorrizko herriek zapalkuntza bizi dutela mahai gainean jartzea. Lekuan lekuko osasun sistemak kontuan hartu behar dute testuinguru hori paziente indigena edo jatorrizko paziente artatzeko orduan. Badira beste kontzeptu batzuk osasun langileen eta pazienteen arteko kultura desberdintasunak lantzen dituztenak,

baina jatorrizko herrialdeek ez dituzte baliagarritzat jo. Hala, maoriek garatu zuten segurtasun kulturala kontzeptua. Elizegik azaldu du ezin dela banakako osasun langileen gain utzi desberdintasun horiek kudeatzearen ardura, egiturazko zapalkuntzaz ari garela, arrazoi historikoak dituen, “eta langile guztiok ulertu behar dugu hori”. Erakunde publikoen ardura da ekitatea bermatuko duen arta eskaintzea pazienteari, zehatzago esanda, osasun sistemarena: “Sistemak langileak behartzen ditu hausnarketa horretan parte hartzera, kontuan har ditzaten pazientearen eta komunitatearen beharrak”. Maoriek garatutako kontzeptua batez ere jatorrizko herrien errealitatea ikertzeko erabiltzen da, baina jatorrizko ez izanda ere, gutxiengo etniko direnetan ere erabiltzen da.

## EUSKAL HERRIAN OSO ATZETIK

Zeelanda Berriko biltzarrean batik bat Zeelanda Berriko, Amerikako Estatu Batuetako eta Kanadako esperientziak eta ikerketak aurkeztu dituzte. Elizegiren ustez, Euskal Herrian “berde gaude” se-

gurtasun kulturala gaiari dagokionez. Aipatu ditugun herrialdeetan gaia jorratuago dutela esan du, eta antolatuago daudela. Azpimarratu du ez dela kasualitatea herrialde batzuetan erizainak lan horietan sendo aritzea, eta beste batzuetan ez. Erizainek osasun sisteman duten botereak edo botere ezak eragina duela uste du, alegia, Kanadan, AEBetan edo Zeelanda Berrian erizainak botere-eskalan gorago daude, Euskal Herrian edo Katalunian baino –azken bietako ezagutza du Elizegik–. Aditzera eman du, horren ondorioz erizainak han edo hemen rol desberdinak jokatzeko dituela.

## MENDETAKO SENDATZE-JAKINDURIA OSASUN SISTEMATIK KANPO

Zapalkuntza linguistiko eta kulturalaren ondorioak modu askotara ager daitezke osasun sisteman. Esate baterako, kalte nabarmena jasan du osasunaren eta zaintzaren inguruan jatorrizko herriek landu duten ezagutza guztiak. Elizegik dio ezagutza “lo” dagoela errepresio historikoaren ondorioz, eta berpiztu egin



Maoriek garatu dute segurtasun kulturala kontzeptua, zeinaren arabera zapalkuntza kultural eta linguistikoa kontuan hartu behar da komunitate indigenak osasun sisteman artatzerakoan.

behar dela. Askotan emakumeen esku egon diren zaintza eta sendatze praktiken transmisioa eten da hala nola, menopausiaren eta erditzearen inguruan zuten jakinduria. Elizegik sendabellerak, eta sendatzeko modu kolektibo eta kulturalak ekarri ditu gogora. Segurtasun kulturala kontzeptuak ahalbidetzen du mespretxatua izan den jakintza hori guztia osasungintzan eta erizaintzan txertatzea. Jakintza hori lehen lerrora ekartzeak ez du esan nahi gaur egungo osasun eta medikuntza praktika alboratzea, baizik eta bi ikuspegiak kontuan hartzea. Bi begietatik begiratzea (*two eyed seeing*) deitzen diote.

Gureak ez beste hainbat jatorrizko herriek ezagutza horiek askoz hobeto mantendu dituztela azpimarratu du Elizegik, eta gurean hizkuntza dela tinkoago dagoen elementua: “Gurean hizkuntza sendoago dago, baina gure pentsamendua askoz ere kolonizatua, bestelako sendabide eta praktikei dagokienez. Sendabide mendebalderak normalizatuago ditugu. Herriaren irakurketa egiten dugunean, askotan, hizkuntzarekin lotzen dugu soilik, hori delako gure kulturaren ardatz garrantzitsuena. Adibidez, euskaraz artatuak izan behar dugula argi daukagu askok. Alabaina, beste arlo batzuetan kalte izugarria egin zaigu, eta gure gorputzetan

dago. Kultura hegemonikoarekin bat egiten ez duen bizimodua eta lurrarekiko lotura mespretxatu da eta geuk sinetsi dugu”.

### BERANDU BAINO LEHEN GAIARI HELDU BEHARRA

Aterabideez hitz egin dute biltzarrean: komunitateen artean bilatu behar da irtenbidea, zapaltzaile izan den eta den sistemaren zain egon gabe. Jatorrizko herrien sarea baliagarria dela uste du Elizegik horretarako, baina Euskal Herriko egoera zaila dela dio: “Dena egiteke dago. Badira ikuspegi hori partekatzen duten erizainak, baina saretu beharko ginateke, horretan lana egin, eta ez dugu laguntzarik jasoko instituzioetatik. Oso berde gaude. Hizkuntzaren alorrean badago mugimendua, lan bat egin da; aldiz, segurtasun kulturala kontzeptua ezagutzen da, baina ez da erabiltzen”.

Bidea malkartsu irudikatu badu ere, ez du itxaropenik galdu Elizegik. Berak planteatzen duen gogoeta eta jarduteko modua beste toki batzuetan egiten ari direla aldarrikatu du –biltzarrean entzun ahal izan dituzte halako adibideak– eta bere planteamenduak euskaldunentzat balio duelakoan dago: “Zeren askotan osasungintzaren inguruan jorrazten ditugun planteamenduak egiten ditugu gehiengo bagina bezala, eta ez

gaude boterean, gutxiengo gara. Hori azpimarratu behar da, ez biktimizazioan erortzeko, baizik eta bestela beste inork ez duelako egingo, ardura daukagu, bestela desagertzera goaz herri gisa”.

### DATUEN BURUJABETZA ETA SUKALDEKO HIZKETALDIAK

Elizegik hiru eguneko biltzarrean landu dituzten gaien laburpena egin digu:

► **Datuen burujabetza:** Jatorrizko herrien kolonizazio prozesuan klabea izan da datuak kolonizatzea. Osasungintzan, eta gurera ekarrita, ez dira egiten ikerketak euskaldunen egoera aztertzeko. Markoa Espainia edo Nafarroa izan daiteke, baina etniaren aldaerak ez dira ikertzen bere horretan. Ipar Euskal Herriko kasuan erronka oraindik handiago da, datu guztiak Parisen zentralizaturuta daudelako.

► **Ikerketarako metodologiak:** Ohi-ko metodologiek ez dute balio jatorrizko herrien egoerak aztertzeko. Hegemonikoa den ikerketa egiteko moduak sarri norbanakoa aztertzen du, komunitatean fokua jarri gabe, komunitatearen hizkuntzak, kulturak eta abar nola eragiten duten aztertu gabe.

► **Metodologia indigena:** Biltzarrean batzuek azaldu dute halako metodoak erabili dituztela. Ahozko kontaktari garrantzi handia ematen diote. Ikerketarako informazioa biltzeko moduak irekiagoak dira, komunitate kideen ohitutara egokitzen dira. Adibidez, sukaldean, kozinatu bitartean edukitako solasaldietako edukia erabiltzen da ikerketarako.

► **Kultura sendabide:** Azpimarratu dute hizkuntza eta kultura mantentzeak eta berpizteak duten garrantzia komunitate baten osasunerako.

► **Erizaintzako ikasketetan txertatuta:** Kanadan, adibidez, erizaintza ikasketetako curriculumean segurtasun kulturala kontzeptua ikasten dute. Elikadura burujabetza eta lurraren osasuna ikasgai dira. Beste herrialde batzuetan ere, erizaintzan segurtasun kulturala kontzeptua ikasten da hala nola, Laponian (Sápmi bertako hizkuntzan) eta Zeelanda Berrian (Aotearoa bertako hizkuntzan).



*The Indigenous Nursing  
Research for Health  
Equity Summit* bilkura

[www.indigenousnursingsummit.com](http://www.indigenousnursingsummit.com) ●

## BTN PODCASTA



## Bukatu da BTN bideopodcasta

 ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

**G**azte hauek lortu dute bertso-laritzari siglak behintzat lapurtzea, hitz-joko batetik hasi zenak bere bidea egin baitu eta, bereganatu, txapelketa gorenari ebatsitako hizki handiak. BTN. 2022an Goenaga jogurtekin jolasean hasi zuten ibilbidea, baina bukaera emateko ordua ere iritsi da. Haizea Aranak, Oihana Aranak eta Aner Euzkitzek gidatutako saiorik ez dugu denboraldi batean behintzat gehi-ago ikusiko –ez badira errepikatua, zintzilikatuta geratuko baitira guztiak argia.eus atarian–.

Ikusita Bertso Txapelketa Nagusiaren eta ondoren Señora Sariketen jarraipena egiteko sortu zen bideo-podcastek zer nolako arrakasta izan zuten, 2023ko abenduan urtebete-ko proiektuari eman zioten hasiera eta ordutik 24 saio egin dituzte. Saio

freskoak izan dira, batez ere kultur munduko jendea izan dute gonbidatu, baina beraien arloko gaiez aritu beharrean jorratu dituzte beste bide batzuk eta eztabaida eta elkarrizketa politak sortu dira. Aiora Zulaika *Pirritx*, Xabier Amuriza, Onintza Enbeitza, Danele Sarriugarte, Odei Barroso, Amets Aznarez edo Oihana Fernandez de Barrena izan dira, beste askoren artean, BTNko gonbidatuak. Bi saio berezi ere egin dira 2024an zehar, platotik kanpo: Ziburuko Azokan bata, Yolanda Arrieta eta Bea Salaberrirekin eta EHZ festibalean bestea, Kattina Haran jaialdiko antolatzailearekin eta Anari musikariarekin.

### PROFIL GAZTEA JARRAITZAILE

Jende gaztea izan da orokorrean saioak jarraitu dituenen (espero bezala), baina 40 urte inguruko emakumeen kopu-

rua ere txikia ez dela ohartu dira eta gustura daude lantaldeko kideak.


Aitor Altuna, Beatriz Egizabal *Grego* eta Edurne Azkarate izan dituzte kolaboratzaile eta umorerik ez da falta izan, kritikatik beste.

“Mimoz eta gustuz egindako lana izan da, baina deskantsua ere behar dugu”, adierazi dute ARGIAko lantaldean honi heldu dioten hiru lagunek. “Ez dizkiogu ateaik itxiko BTN berri bati, baina bukaera bat ere behar zuen honek”, esan dute. Nahiz eta saioak amaitu diren, ikusgai daude sarean eta ez dira iraungita gelditzen, oraindik ikusi ez dituenarentzat ere.

BTN berririk izango den nork daki –txapelketa bai, ziur, egon lasai, bertsozale, BEC-eko aulkiak ondo zapaltzeko aukera gehiago izango dituzu–, baina izango bada zer forma hartuko duen ezin jakin. Zain geratu beharko dugu. ●



# Groenlandia erosi nahi dute



**NAGORE  
IRAZUSTABARRENA  
URANGA**

**G**roenlandia, X. mendearen amaiera. Lehen esploratzaile eta kolono eskandinaviarrek uhartera iritsi ziren. Baina XV. menderako kokaleku horiek abandonatuta zituzten eta jatorrizko inuitak geratu ziren. Baina 1721an, Hans Egede misiolariak espedizio bat antolatu zuen eta kolonoak egungo Nuuk hiri inguruan kokatzen hasi ziren. Orduz geroztik, Groenlandia Danimarkako lurraldea da, ofizialki erresumara 1953an atxiki arren. 1979an, erreferendum bidez, lurralde autonomo estatusa lortu zuen, eta 2009an beste erreferendum batek eskumen gehiago eman zizkion.

Danimarkako Gobernuak berriki adierazi du groenlandiarrek beraiek erabakiko dutela beren etorkizuna. Hau da, autodeterminazio eskubidea aitortu die uharterko 56.000 biztanleei –daniarren nahia erresumaren barruan geratzea dela azpimarratu arren–.

Baina Groenlandiaren bidean beste eragile garrantzitsu bat agertu zen aspaldi: AEBak. Groenlandia erosteko Trumppek adierazitako asmoa ez da berria.



AEBetako armadak Groenlandia okupatu zuen Bigarren Mundu Gerran, alemaniarrek Danimarka okupatu ondoren.

1867an, AEBek Alaska Errusiari erosi ziotenean, Washingtongo politikari eta intelektualek munduko uharte handienarekin berdin egitea eskatu zuten.

Baina ez zuten lortuko Groenlandia zapaltzea Bigarren Mundu Gerra arte. Danimarka alemaniarrek okupatuta, AEBetako armadak Groenlandia okupatu zuen. Daniar Defentsarako Errege Eskolako kide Mark Jacobsenen hitzetan, “hasieran, Groenlandiaren okupazioa Da-

nimarkaren gonbidapena izan zen ia, nazien mehatxua zela eta, baina gerra amaitzean Danimarkak esan zuen mehatxua amaitua zela eta erretiratu zitezkeela”. Jakina, AEBak ez ziren erretiratu, eta mehatxu sobietarren aitzakian, hamarkada luzetan jarraitu dute.

1946an James Byrnes AEBetako estatu idazkariak beste eskaintza bat luzatu zuen: uharterean truke 100 milioi dolar ordaintzeko prest zeuden, urrezko lingotetan. Daniar gobernuak ezezkoa esan zuen. Baina 1951n, AEBetako armadak uhartera uzteko inolako asmorik ez zeukala ikusita, amore eman eta estatubatuarren

presentzia arautzeko akordioa sinatu behar izan zuen.

Militarki gune estrategikoa zen orduan Groenlandia. Gaur, irlaren %80 hartzen zuen izotzak atzera egin ahala, itsasoz merkataritza bide berriak irekitzen ari dira eta, lehorrean, baliabide naturalak, hala nola burdina eta uranioa, errazago ustiatu daitezke. Finean, Groenlandia nahi dute ukatzen duten klima aldaketari zukua ateratzeko. ●



EURAC RESEARCH

## *Yersinia pestis* Egipton

Duela 3.300 urteko egiptoar momia batean *Yersinia pestis*-en arrastoak topatu berri dituzte, hau da, VI. mendean Justinianoren izurria eta XIV. mendean Izurri Beltza eragin zuen bakterioarenak. Adituek orain arte uste zuten garai hartan izurria soilik Eurasian hedatu zela, baina aurkikuntza honek ikerketa ildo bat zabaltzen du, Antzinaroan Afrikan ere,

Nilo ibaiaren bailaran behintzat, izurri agerraldiak izan zirela esan nahi baitu. Hipotesia ez da guztiz berria, Burnaburiash errege babiloniarren gutun batean eta Tutankhamonen ediktu batean izurriaren aipamenen bat egiten zelako, baina orain, lehenengoz, froga zientifiko batek bermatzen du testu zaharrek jasotakoa. ●

# AURTENGORAKO IRAKURGAIAK



**GARBIÑE LARREA  
ITURRALDE**

**U**rte berriaren hasieran asmo berri tu egiten gara dirudienez, eta egin beharreko zereginen zerrendak egiten ditugu gutako batzuk. Egiteko horien artean irakurtzeko ditudan liburuen zerrenda izaten da bat, gero eta zerrenda gizenagoa. Zuetako ez gutxik zer irakurtzen dudan galdetu izan didazuenez, zerrenda horren berri ematea pentsatu dut. Donostiako Hontza liburu denda jarraipen bila ari dela berriki jakin dudalarik, bihotzeko minez ere idazten dut gaur liburuez.

Liburu hauek guztiak etxean ditut, batzuk irakurtzen hasiak eta beste batzuk ukitu ere egin ga-beak. Norberak liburu bat idazten duenean nekeza izaten da irakurtzea, horrela bizi dut nik bederen; begiek atsedena eskatzen didatela iruditzen zait askotan. Hala, zerrenda gero eta gizenagoa aizue, ilusioz erosi eta irakurtzen hasitakoak apalean baitauzkat zain.

Zuza Zaken *Slavic Kitchen Alchemy, nourishing herbal remedies, magical recipes & folk wisdom* liburua da aurrenekoa. Amona poloniarrak erakutsi ziona jasotzen du liburuan egileak, sukaldeko tradizio zabala baina elikagaien eta sendabelarren artean bereizketa handirik egin gabe.

Aina S. Erice eta Amanda Mijangosen *Viriditas Landareen mundu zoragarria ikusarazi ziguten emakumeak* liburua ere bukatzeke daukat. Itzulpena egin zuen Uxo a Iñurrietak oparitu zidan eta bereziki ederra iruditu zitzaidan, orri gutxiren faltan uste dut bukatzeko penez nagoela.



Bigarren eskuko liburu dendetan aurkitutako altxor bat ere hortxe daukat zain, ia nire adina daukan liburu bat. William A. R. Thomsonen *Guía Práctica Ilustrada de las Plantas Medicinales* du izena eta lan mardula dago izenburu arruntegi eta erabiliegi horren atzean. Gaur egun boladan zer dagoen ikusteko balio du, duela ez hain aspaldi beste sendabelar batzuk zuten ospea ezagutzeko ere bai; uste dut bilakaera hori nola gertatu den ikusteko baliagarri izango zaidala.

Katakraken deskubritu nuen Impedimenta argitaletxearen *Gótico Botánico*,

*cuentos de un verdor perverso* ere hortxe daukat zain, sendabelarrak eta literatura uztartzen dituen lan bitxia. Mundu begetala fantasiatik irakurri izan duten egileen istorioen katalogoa dugu. Nathaniel Hawthorne edo Road Dahl izan daitezke ezagunenak baina Mary Elizabeth Counselman, Eli Colter edo Maria Moravskyren ipuinak ere badaude bilduman. Hemendik aurrera berdea beltz berria izango dela dio kontrazalean, berdetasun siniestroa jasotzen baitute askotan egileek euren ipuinetan. XIX. eta XX. mendeetan landareak izaki misteriotsu eta onuragarri bezain hilgarritzat ikusi zituzten askok, gaur egungo liluratik aparte samar.

Michio Hoshino egilearen *El árbol viajero* da zerrendako berriena. Ekologia, mistika, lurrarekiko maitasuna eta auto deskubrimendua biltzen dituela azpimarratzen du argitaletxeak. Zerbait izango du, 72. edizioan baitoa. Egilea natura gaitzat hartu zuen argazkilaria dugu, enkargu bat dela medio Errusian lanean ari zela hartz arre batek eraso eginda hil zena –gaitzerdi nire enkarguz ez zaigula halakorik gertatu, gehienez ere asunak erre zituen Dani Blancoren hatzak eta izpiliku soroan galdu zitzaigun Ibai Arrieta–.

Eta sendabelarrez, naturaz eta “nire gaiez” atsedean hartu beharra sentitzen dudanean Uxue Alberdiren *Hetero* irakurtzen jarraituko dut. Ohiturari kontra eginez atzekoz aurrera hasi bainintzen irakurtzen eta jarraituko dugu ur hotzetan igerian. Fikzioaren, bizitzaren eta (bihurtzen ari) garen horren arteko hariak asko eta anitzak direlako errealitatea deitzen diogun trama honetan. ●

## A ZE FAUNA!

## HOTZA MAITE DUEN IGELA



**IÑAKI SANZ-AZKUE**  
ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEKO KIDEA

**A**rboletako hostoak eroriak dira eta basoko lurra estalia dute. Lurraren eta hosto gorrituen artean, alabaina, sortzen da geruza fin bat, arreta gutxi jasotzen duena, baina espezie askoren biziraupenerako garrantzi handia izan dezakeena. Hezetasuna mantentzen du, zomorroak erakartzen ditu eta babesa ematen du. Eta hor, lurrera eroritako hosto horien artean, mugitzen da anfibio bat: baso-igel gorria. Lurraren nabarrean, marroi kolorea gutxiago ikusten baita.

Eta galdetuko diozu agian zeure buruari, ea anfibioak ez ote ziren udaberriko animaliak. Beti esan izan baita anfibioak ektotermoak direla. Alegia, kanpoko tenperaturen menpe bizi direla eta tenperaturak goxatzen hasten direnean agertzen direla. Eta entzungo zenuen ere, putzuetan neguaren ostean ugaltzen direla, euriteen ondoren, putzuak urez beteak izaten direlako. Eta ez zabilta oker hala pentsatzen baduzu, baina... espezie guztiak ez dira berdinak, eta baso-igel gorria hotza maite duen igela da, metabolismoa mantsotzeko eta tenperatura baxuetan irauteko gaitasuna baitu. Horregatik, udazkenean hasi eta udaberria bitartean ugaltzen da batez ere. Negu inguruan, anfibio espezie gehienak ez bezala.

Temperaturak jaisten hasten direnean, baso-igel gorria basoko lur gorritutik putzuetara joaten da, orbel artean, migrazio txiki bat bailitzan. Udazkenean, mendietako urmaeletan, bidezidor, gurdi-bide edo pistetako putzu-zuloetan jartzen ditu arrautzak igel honek. Poltsa lirdingatsu itxurako arrautzak dira. Ikusteko oso nabarmenak. Ezagunak mendira joateko ohitura duen edonorentzat. Eme batek 2.000 arrautza jartzeko gaitasuna du eta 2-4 hilabetetan bihurtuko dira zapaburu aurrena eta igel ondoren.



IÑAKI SANZ-AZKUE

Baso-igel gorria bederatzi cm inguruko tamaina hartu dezakeen anfibioa da. Bere izenak dioen moduan, gorritzat, nabar argia edo iluna izan daiteke eta populazioaren arabera, gorputzean dituen orbanak eta kolorea bera ezberdinak izan ohi dira. Ugal garaia urri erdialdean hasten du kostaldetik gertu, eta altueran gora egiten dugun heinean, atzeratzen joan ohi da. Esaterako, Pirinioetan mar-

txora arte ugaltu ohi dira. Izan ere, baso-igel gorriaren banaketa itsas-mailan hasi eta Pirinioetan 2.500 metroraingoz zabaltzen da.

Hotz zalea izanik, European gora hedatzen den espeziea da, hasi Iberiar penintsulako eremu atlantikotik eta Eskandinaviaraino. Igel arruntena da European, eta hortik bere ingelesezko izena: *Common Frog*. Arrunta izanagatik, ordea, Europa mailan babestua dago. Izan ere, Euskal Herriko eremu askotan urtetan harrapatua izan den espeziea izan da, bere izterretako haragia preziatua baita askorentzat. Oilaskoaren antzekoa, diotenez.

Ornogabe jale amorratua da baso-igel gorria eta orbelaren artean aurkituko ditu horiek. Bertan egoten da geldi eta isilik. Eta ez da mugituko, gizakiaren oinaren arriskua gertu izan arte. Orduan, sekulako saltoa emango du. Uretan egiten duen modukoa. Putzuetan, ordea, garaia iristean, kantuan ere ariko da. Ur azpiko koruak egingo dituzte, ez oso ozenak. Baso-igel gorria isila baita, baina ez mutua. ●

## BASO-IGEL GORRIA

*Rana temporaria*

**TALDEA:** Ornoduna / Anfibioa.

**NEURRIA:** 9 cm.

**NON BIZI DA?** Basoa eta urmaela, garaia araberan.

**ZER JATEN DU?** Ornodun txikiak.

**BABES MAILA:** Europa mailan babestuta.

# EUSKAL HERRIA BANANA ERREPUBLIKA



**JAKOBA ERREKONDO**  
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

**S**ekula bananarik jan ez duten bi lagun ezagutzen ditut; nerau bat. Bananazalea da, ordea, jendea. Afrika eta Asia aldean sortutako landare generoa da banana (*Musa x paradisiaca*), baina gaur egun Ameriketara ere asko egiten da. Ekoizlerik handiena India da, eta esportatzaile nagusia Ekueador. Banana janzalea da jendea hemen, Espainiako batezbestekoa urtean hamahiru kilo da biztanleko; Frantziakoa zortzi kilo inguru, eta Europakoa tartekoa, hamar bat kilo urteko.

Laster geurean are gehiago jango dela iruditzen zait. Elgoibarren Gabon zaharreko azoka urteko azken larunbatean izaten da, eta igaro berria den azkenekoan, Bizkaian ekoiztutako bananak azaldu dira.

Klimaren aiekatik iker-mikertuta, Bizkaia da Euskal Herriko lurralderik tropikalena; ekialdean baino euri gutxiago egiten du baina tenperatura epe-lagoa du. Eta Bizkaian aparteko tokiak badira, paradisua; gu animaliontzako bainoago landareentzako: Armintza, Plentzia, Bakio, Bedaroa, Natxitua eta abar luze bat. Abar luze horretakoa da Ispasterko Kurtziaga-Arropain. Hantxe dago Iparragirre baserria, eta bertan, Iparragirreko Ortua izenarekin barazki eta fruituak ekoizten ditu Igor Lete Urriolabeitiak. Urteak dira bateko eta besteko azokatan ikusten dudala bere ekoizpen gero eta zabalagoa. Urteak dira eta, nire memoria kaxkarrari esker, ez dut gogoan zein herritakoan, baina uste dut Urretxu-Zumarragako Santaluzietakoan zela: zuhaitz tomate landare bat erosi nion. Gaizki esanda “tamarilo” ere esaten zaio *Solanum betaceum* landareari. Sekula ikusi gabea nuen Euskal Herrian eta bera saltokian eskeinka. Ez



JAKOBA ERREKONDO / ARGIA-CC-BY-SA

zidan berehalakoan landarea eman; ea non bizi beharko ote zuen-eta hasi zitzaidan galdezka, eta gure etxean itsasoaren eragin zuzen xamarra izango zuela argitu nion arte ez zidan eman. Gaur ederki asko bizi da gure atari aurrean eta erruz ematen ditu tomate bereziak. Eskerrik asko, Igor. Aukera duzunean zalantzarik ez izan bere salgunea ikustera joateko. Ikusgarria da eskaintzen duen barazki eta fruitu aukera. Askok lehen aldiz ikusiko dituzu, Euskal Herrian ekoiztiak behintzat: litxia (*Litchi chinensis*), guaiaba (*Psidium guajava*), marakuia (*Passiflora edulis*), luloa edo naranjila (*Solanum quitoense*) eta abar. Berak aspaldi jarritako beste batzuk orain ohikoak dira gure lurretan: ahua-kateondoa (*Persea americana*), fisalisa

(*Physalis peruviana*) eta abar. Ikusgarria da baita ere nola aurkezten duen salgaien aukera: koloreka, marrazkiak, ikurrinak, banderak, lauburuak eta abar eginez. Era ekologikoan ekoizten du nekazari aurreratu honek; garbi dauka kalitatea non dagoen baina baita osasuna ere, eta hori eskaintzen digu bezerooi.

Igorrenak ziren Elgoibarko azokan saltzera azalduetako Euskal Herriko lehen banana haiek. Eta Igorrek hor jarraituko du gu denoi bidea garbitzen eta etorkizunean gure baratze, soro eta frutaboladi izango direnei buruzko ametsak eraikitzen, errelitatetik. Adibidez, nik uste dut txokoren batean landatuta izango dituela dagoeneko pitaia (*Stenocereus spp.*) aleren batzuk. Datozen urteetarako ikuskizun! ●

## ALEKO

# “NEKAZARITZA BIRSORTZAILERAKO ETA PROIEKTU KOLEKTIBOETARAKO TEST GUNEA DA GUREA”



GARAZI ZABALETA

**N**ekazaritzan trebatzeko eta proiektu propioak abiatu aurretik ekoizpenean eta merkaturatzean norbere burua probatzeko, abian dira gurean nekazaritzako hainbat test gune. Araban, 2023an abiatu zuten Aleko nekazaritzako test gunea, baina, antzeko egitasmo gehienekin alderatuta, proiektuak badu berezitasun bat: “Nekazaritzako test guneek sektorerara jende berria erakartzeko helburua dute, eta guk ere jendea nekazaritzara bultzatu nahi dugu, baina ez edozein ekoizpen motara: gure azken helburua elikadura sistema jasangarriagorantz pausoak ematea da”, azaldu du Jon Ruiz de Infantek, Gasteizko CEA Ingurugiro Gaietarako Ikastegiko teknikariak. CROPS4LIFE Europako proiektuaren baitan kokatzen da egitasmoa, eta aldundiaren, udalaren eta beste zenbait

entitateren babesu jaso du. Europako laguntza lau urtetarako izan arren, aurrera begira segitzea dute asmo, teknikariak nabarmendu duenez.

## PROIEKTU KOLEKTIBOAK ETA NEKAZARITZA BIRSORTZAILERAKO

Bi irizpide horietan oinarritutako egitasmoak bultzatzea da Aleko gunearen helburua. “Test gunean sartzen diren kideek bost hilabeteko formazioa jasotzen dute nekazaritza birsortzailearen esparruan, eta ondoren, proiektu kolektiboa sortzeko modulua ere izaten dute”, argitu du teknikariak. Eredu kolektiboa bultzatzen dute, etorkizuneko ekoizpen proiektuek bideragarritasun ekonomiko ez ezik bizi-bideragarritasuna izan dezaten. “Esperientzia askok erakusten dute gaur egun oso zaila dela proiektu indibidual bat abiatzea bizitzako beste

esparru askori uko egin gabe, horregatik bultzatu nahi ditugu proiektu kooperatibo eta asoziatiboak”, dio.

Iazko promozioko lau lagunek, esaterako, proiektu kooperatiboa abiatu dute orain. “Aleko partzelak Basaldean eta Monasterioguren herrian ditugu, Gasteiztik gertu, bertan garatzen dituzte partaideek haien proiektuak”. Testatzaileek urtebetez erabiltzen dituzte proiektuko partzelak, baina horrez gain formazioa, aholkularitza eta jarraipena ere izaten dituzte. Nekazaritza birsortzailean aditu diren Sustraiak Habitat Design eta Basaldea proiektuetako kideak dira gidariak. “Lurra-aren osasuna eta mikrobiologia berreskuratzera bideratua dago nekazaitza birsortzailea, sistema konplexua da, ekoizpenetik harago begiratzen duena”. Otsailean hasiko da aurtengo programa, hamar lagunekin.

## ZUZENKO SALMENTARAKO PLATAFORMA ERE ABIAN

Aleko test gunea martxan jartzearekin batera, bertako kideek eta beste edozein ekoizleek haien produktuen salmenta modu zuzenean egiteko erremintak ere ari dira garatzen egitasmoan. “Salmentarako plataforma bat sortu dugu proiektutik, marketplace. Test guneko kideei ez ezik, hemengo ekoizleei irekia dago plataforma, haien produktuak Gasteizen bertan saltzeko aukera izan dezaten”. Plataforma martxan dago honezkeroko, baina proban ari dira orain, eta maiatzean publikoki irekitzea da bultzatzaileen asmoa. “Banaketarako Eraman kooperatiba ere egitasmoaren parte da, bizikletaz egiten dituzte banaketak”, gehitu du. ●



“ ”

# Kanpokoak hain argi identifikatzen eta salatzen genituen bitartean, barkaberak izan gara etxekoekin

## Miren Amuriza Plaza

DBH4 errepikatu zuen urtea gogoratzen du Jonek *Pleibak* (Susa, 2024) eleberrian. Adinkideak Durangoko institutura aldatu ziren, eta Polly auzokidearen ikasgelan geratu zen bera. Hautzaroa Joneren baserria eta Pollyren txaleta lotzen zituen errepidean gora eta behera emana zuten biek, joan-etorrian, jira-bira amaigabe baina banaezinean. Harik eta irailetik ekainera, gutxika baina azkar eta behin betiko arrakalatu zen arte bien artekoa, eurek ere zer gertatu zen ondo jakin barik.

LEIRE VARGAS NIETO DAN I BLANCO / ARGIA CC-BY-SA

**Orain bost urte pasatxo eman zenuen *Basa* (Elkar, 2019) lehenengo eleberria. Zahartzaroari begiratzan ziola esan liteke. *Pleibak*-ek, aldiz, nerabezaroari. Nondik dator fokua garai horretan ipintzeko gogoa?**

Liburuaren muina ez zen izan historia hau kontatu edo gai hau lantzeko nahia. Nekarrena zen lengoaia literario jakin bat praktikan jartzeko gogoa; ahozkotik ahalik eta gertuen egongo zen lengoaia. Itziar Ugartek “zikinak jandako hizkuntza” proposatu zuen kontrazalerako, eta ondo deskribatzen du bilatu nahi nuena: hizkuntza bat esan-indarra daukana, ahozkotik hurbil dagoena eta gazte-giroari lotua. Erregistro horretan arituko ziren ahotsen bila nenbilela ailegatu nintzen pertsonailetara, eta hortik baita gure nerabezaroaren testuigurura ere.

**Izan ere, *Pleibak*-en ezaugarri deigarrienetakoa da ahots narratzaileak darabilen hizkuntza. Nola definituko zenuke?**

Azpimarratu nahiko nuke, lehenengo eta behin, liburu zehatz honetarako hartutako erabaki-multzoa dela hau, ez lengoaia literarioari buruzko irizpide orokorra. Normalean, narratibaz ari garenean, beste hautu batzuk esplizitatu egiten ditugu, eta hizkuntzari lotuak ez hainbeste. Baina hautuok beti daude hor. Niretzat inportantea da kontatzen ari zaren istorio horri ahalik eta ondoen doituko zaion erregistroa topatzea, erabaki konkretuak hartzea. Hizkuntza ez baita bakarrik esanahia, berbarena,

esaldiarena eta paragrafoarena. Soinubanda efektua ere badauka, eta informazio gehigarri pila bat berba bakoitzaren baitan.

Kasu honetan, irizpidea izan da ahalik eta zehaztasun lexiko handiena bilatzea. Bide horretan konturatu naiz, esan nahi nuena esateko, askotan pasatzen nintzela erdaratik edo bizkaieratik. Orduan, lexikoan irizpidea izan da malgu jokatzeari, eta erdaratik datozen berbak erabiltzea baldin eta gaztelaniazko eta frantsesezko itzulpenak antzerakoak badira, edo euskarazko ordainak baino laburragoak edo indartsuagoak badira: brillante, hortero, liminal... Beraz, hiztegiarekin malgu jokatzeari erabaki dut.

Eta kontrara, sintaxian zorrotza izan naiz: garrantzia handia eman diot euskarazko egiturak zaintzeari. Uxue Alberdik *Hetero*-ri buruzko ARGIAko elkarrizketan aipatu zuen moduan, hizkuntza arduratik edo arduragabekieratik apur dezakezu. Ni ahalegindu naiz arduraz egiten, eta, apurtu dudan tokietan, kontzientzia osoz jokatzeari, pentsatuta irabazteko gehiago daukagula horrela, galtzeko baino.

Sonoritateari dagokionez, Andrea Abreuren *Panza de Burro* (Barret, 2020) oso adibide ona da. Ingurukook, irakurri genuenean, geure buruari galdetu genion posible ote zen halako zerbait





egitea euskaraz. Nik uste, hura idatzita dagoen modua euskaraz eman-go bagenu, hurbilago legokeela, euskalkitik baino, *sukalkitik*: esandako moduan idatzita, berbak elkartuta eta janda, ortografia-arauei bazter eginda... Hainbesteko apurdura euskararen kalterako litzateke, batetik, komunikatiboki, bideragarria ez delako, Abreuren Tenerifeko hizkera hurbilago baitago Zaragozako erdal hiztun baten hizkeratik, gure mende-baldeko euskara lapurtar batenarengandik edo euskalkirik ez duen hiztun batenarengandik baino. Eta bestetik, apurdurei eutsi ahal izateko, egiturak sendo egon behar duelako: gure kasuan, hizkuntza-egitura sendorik ez dugunez, batu baino, euskaldunon komunitatea zatitu egingo luke gehiago. Esperimentaziorako tarterik ez daukagula esan nahi du horrek? Ez. Horrekin jokutzen saiatu naiz. Gauza konkretuetan bilatu dut jolasa, adibidez, markak edo oso geuretuta ditugun erdarazko esaerak esaten ditugun moduan idatzita. Euskara batuari bitartekoak topatzen saiatu naiz, testuaren osotasunaren karga eta ulermenaren ardatza galdu gabe betiere.

***Panza de burro* bada gaztelaniazko literaturan azken urteetan eman den nerabezeroari begirako korrante baten parte. *Pleibak-i* ere har dakioke horren eragina. Zelan esango zenuke lurreratzen direla gurearekin ukipen-egoeran dauden literaturetako mugimenduak euskal literatur sisteman?**

Nire inguruan behintzat guztiok irakurtzen dugu erdarazko literatura, gaztelaniazkoa eta anglosaxoia, baita frantsesa ere. Eta esango nuke oso zabalik gaudela beste literatura batzuetan sortzen dena jasotzeko.

Bestalde, gaitza zait orokortzea, baina iruditzen zait, duela gutxira arte, oso zurruna izan dela gure errealitateaz kontatu ahal izan dugun errelatoa: bereizi behar genituen alde bata eta bestea, zuria eta beltza... Eta, biziraun ahal izateko, geure buruari buruz sortu dugun errelato horren barruan ailegatu gara honaino, bere abantaila eta desabantailekin. Tes-tuingurua aldatzen eta zabaltzen joan da, ordea, eta era berean espero dut errelato literarioa are askotarikoagoa izatea bost urte barru, hamar urte

barru. Orain, beste gai batzuk problematizatzen hasi garen moduan, beste gatazka batzuk politikotzat hartzen eta gauzak izendatzen, fikzioan ere eragingo du ikuspegi horrek, eta zabalduko da garrantzitsutzat edo idazteko zilegitzat ditugun gaien zerrenda.

**Bestalde, ez da kasualitatea nerabearoak halako interesa sortzea, geure burua inoiz baino gehiago eraikitzen eta definitzen joan ohi baikara garai horretan. Zer forma hartzen du aroak liburuan?**

Lehen aipatutako liburuak eta oraingoak ere inimiziazkotzat hartzen dira askotan. Bada trantsizio bat: pertsonaiak heltzen ari dira, baina ume-buztana zintzilik daramate oraindik. Hor daude, erdibidean. Oso garai intentsoa da eta, nire ustez, hunkigarria. Denok egon baikara hor, denok izan gara izaki hori, instituturako kamiseta moztua eta modako kanpanoloak janzten dituenak, eta, aldi berean, umetako pijamarekin lo egiten jarraitzen duena.

Kontraste handi-handiko sasoia da, norberarengan, gorputzean, inguruak baldintzatzen zaituen eran... Gure kasuan, gelakide guztiok ibili ginen eskola berean 6 urtetik 16ra, denok ustez baldintza berdinetan. Gerora ikusi dut, baina, zenbateraino gentozen bakoitza geure egoerak markatuta. 14 urterekin ez zara konturatzen kartak alde aurretik banatuta daudela, ez zure kartak on samarrak direnean behintzat; zure jatorrizko estraktu sozioekonomiko eta kulturalaren arabera, baliabide batzuk izango dituzulako, gustu batzuk, afinitate batzuk... Bien bitartean, zeure izatea eraikitzen ari zara, barrura begira, baina baita besteekiko elkarreraginean ere, taldeari begira, nor aukeratzen duzun eta nork aukeratzen zaituen... Dena dago baldintzatuta. Alde guztietatik lehertzen den etapa da nerabearoa, eta haren baitan konplexutasuna bilatzeko eta sakontzeko tartea ematen du.

**Hala ere, gaur egunetik ari da Pleibak: Joneren begirada helduak kontatzen du 2000ko hamarkadako nerabearo hori.**

Umeen edo nerabeen ahotsak idatzira ekartzeak arrisku batzuk ditu, nire ustez: diskurtso oso naifak egiten buka dezakezu edo, guztiz kontrara, heldu batekin esan eta pentsatuko lituzkeen gauzak pertsonaia gazteago baten ahotan jarritzen. Ahots hori behar bezala doitzea

“ ”


Askok eduki dugu lehenengo “bikote harremana” lagun batekin, hala identifikatu ez arren

gaitzagoa egiten zitzaidanez, egokiagoa iritzi nion distantzia hartzeari.

Bestetik, gertatu zenari buruz ikuspegi kritikagoa edukitzeko aukera ematen zidan horrek. Garai horrek gaur egunetik desberdin ikusten ditudan hainbat geruza ditu, eta bigarren irakurketa egiteko gogoia neukan. Kontziente izanik irakurketa nostalgiko bat egiteak dauzkan arriskuez, hori bai. Ahalegindu naiz hortik ihes egiten. Uste dut iragana idealizatzea dela nostalgiaren arrisku handienetako bat. Azken urteotan eta pandemiaren geroztik bereziki, diskurtso apokaliptikoak nabarmendu diren honetan, ematen du mundua orain dagoen moduan edo okerrago egongo dela beti, eta, beraz, lehenengo guztia hobea zela. Eta hori ez da horrela: bai lehenengoak eta bai oraingoak baditu bere argi-ilunak. Horren aurrean, saiatu naiz ahalik eta zehatzena izaten gertakizunetan, eta ahalik eta objektiboena deskribapenetan, zenbait gauza problematizatzeko bidea zabaltzeko.

**Arauaren kontuari tiraka, liburuak idatziko lukeena Polly litzatekeela esanez hasten da kontakizuna. Izan ere, gutxietsi ohi ditugun ahotsak hartuko dute fokua: feminismoan kabitzen ez den baina bizitza zaintzen ematen duen Beda, manifestara joan arren gaztetxera gonbidatzen ez duten Jone... Azkura eragiten du batzuetan.**

Autokritika egiten saiatu naiz. Nerabearoan motibo askogatik apurtzen dira harremanak. Kasu honetan, Joneren begiradak behin eta berriro ikusarazten digu, garai hartan behintzat, zaku berean sartzen genituela militarren ez zuten lagun guztiak, kontuan eduki barik beharbada beldurreratik ez zeudela hor, edo informazio faltagatik, edo interes faltagatik, edo desberdin pentsatzen zutelako. Eta, orain, atzera begiratuta, nabarmena da, ordura arte hur-hurrekoak izandako lagunekin ere, egun bate-



tik bestera zer jarri genuen balioan eta zeri kendu genion garrantzia, eta zelako amildegia sortu zuen horrek lagun taldeetan.

**Gizonekiko harremanak eta zisheteropatriarkatuaren inposaketak ere modu desberdinetan zeharkatzen ditu Polly eta Jone.**

Bai, eta inposaketa horrek geruza asko ditu, horregatik ahalegindu naiz ahalik eta gehien zehazten eta konplexuago egiten. Biak zeharkatzen ditu ideologia berberak, baina, harremanen kasuan adibidez, desberdin proiektatzen dute desio dutena. Akordatzen zara zelan egoten ziren linterna batzuk irudiak proiektatzen zituztenak? Estalkia aldatu eta irudi desberdinak eman zenitzakeen. Ba, Jone eta Pollyren kasuan, berdina da: linterna berbera daukate, baina proiektioak desberdinak dira. Jonek muturre-





ko emozioak sorraraziko dizkion norbait bilatzen du Adirengan, estutzen duen horretatik guztitik aldentzeko ihesbide bat eskainiko dion tipo bat. Eta, Pollyk, aldiz, manifa batean Etxebarekin topo egin eta segundora irudikatzen du bien balizko bikote-bizitza militante perfektua.

Autokritika egiten saiatu naiz horretan ere; errazago identifikatzen ditugu biolentzia eta botere-harremanak etxetik kanpo edo inguru ez-politizatueta gertatzen direnean. Lokaleko mutilak erraz kantzelatzen ditugu lagun bati mameda bat egiteko ordaindu dioten tiparen inguruan berbetan ari direnean, edo dantza-taldekoak erdi brometan neska bati ezpata bat hankartetik sartzen diotenean. Etxean gehiago kosta zaigu. Pankartak jartzen edo turnoak egiten ari den kidea, kanzelatu? Zelan ba? Uste dut beranduago heldu garela irakurketa horretara. Eta hori ere kontaktu nahi nuen:

“ ”

Hizkuntza arduraz apurtzen ahalegindu naiz, eta, apurtu dudan tokietan, kontzientzia osoz jokatzeko, pentsatuta irabazteko gehiago daukagula horrela, galtzeko baino

kanpokoak hain argi identifikatzen eta salatzen genituen bitartean, etxeokoen zeinen barkaberak izan garen.

**Maitegorrotoa da bi protagonisten artekoa; emozio gama osoa**

**gordetzen du harremanak. Biak ere norbere burua elkarri begira eta elkarrekiko erreakzioan eraikitzen ariko balira lez.**

Garrantzia handia eman diot pertsonaiak eraikitzean heroia-antiheroia oposizioan ez erortzeari. Joera dugu gauzak dikotomietan ulertzeko: baserria eta katea, lokala eta gaztetxea, Polly eta Jone... Eta ez nuke nahi ez bi pertsonaiak eta ez giroak horrela uler daitezzen. Hori baino konplexuagoak dira, eta jarraidura baten barruan irudikatzen ditut atzera eta aurrera. Jonek eta Pollyk badute mundu partekatatu bat, baita hainbeste partekatzen ez dituzten eremuak ere. Biek maite dute elkar, biek egin diote min elkarri; ez dago “onik” eta “txarrik”.

Bestalde, gutako askok eduki dugu gure lehenengo “bikote harremana” lagun batekin, hala identifikatu ez arren. Hor egon da maitemintzea, idealizazioa, elkar ezagutzeta, hurbiltzea, eksklusibotasun nahia, zeloak, haustura eta dolua. Bere fase guztiakin. Jone eta Pollyrena ere horrela irudikatzen nuen nik. Amaitu bako dolu baten geruza moduko batek estaltzen du liburua. Azken urteotan ugaritzen ari dira adiskidetasunaren inguruko gogoeta kritikoak, baina nik behintzat dinamika asko eduki ditut izendatu gabe oraintsura arte. Liburuan aipatzen da momentu batean zelan berbak falta izan genituen haustura haiek gauzatzeko eta ulertzeko. Berbak, edo filmak, edo kantak... Bikote-harremanak proiektatzeko eduki dugun iruditeria hori guztia, sanoa zen ala ez eztabaidatzera sartu gabe.

**Paperean dugunaz gain, beste kontakizun eta kantu batzuei ere egingo die bidea *Pleibak*-ek, MICErekin eta beste bertsolari batzuekin batera liburutik abiatutako emanaldiak egiten ari zara-eta. Nola sortu ziren emanaldiok?**

Berrizko aurkezpenarako sortu zen formatua, berez. Liburuan kontaktzen denari beste bizitza bat ematen dio, beste ahots eta begirada batzuek geruzak gehitzen dizkiote. Eta, bide batez, kantarako plazak sortzen ditugu elkarrentzat: *Kontrako Eztarritik*-en esaten den moduan, festan gonbidatuak izatetik harago, geure festa sortzea da hau. Niretzat liburu hau idaztea bera izan da gure jai bat sortzea, geure musikarekin, geure erreferentekin, geure hizkuntzarekin... Geure jaia da *Pleibak*. ●



# Bertso-zopa

Osatu Unai Mendiburuk 2023ko irailean Zarautzen botatako bertsoa. Laguntza behar izanez gero, bertsoari falta zaizkion hitzak zopan bilatu. Doinua: *Haizea dator ifarraldetik*. Jarritako gaia: Marra gorri bat igarotzea leporatu dizute.

Ostegun gaua \_\_\_\_\_ behin Bilbon  
 pintxo-poteak lotuta  
 kuadrillarekin barra ertzera  
 ta lehen \_\_\_\_\_ lortuta  
 harrotuz noa musikak eta  
 gau giroak \_\_\_\_\_  
 jendarte batek moztu du baina  
 lagun arteko \_\_\_\_\_  
 euren bota beltz, buru rapatu  
 eta militarren looka  
 agertu dira "Muerte a los vascos!"  
 ta "Viva España!" \_\_\_\_\_  
 bati muturra berotu diot  
 ta hor hasi da \_\_\_\_\_  
 odol artean irri egin dit  
 nahi zuena \_\_\_\_\_ du ta.



Kendu dituzte preso \_\_\_\_\_  
 ta ondoko ikurrinak  
 nik \_\_\_\_\_ hori pasatu nezan  
 ze nolako ahaleginak  
 eta amua irentsi dut ta  
 hartu berri nau \_\_\_\_\_  
 zerk mugitu nau injustiziak  
 edo biolentzi \_\_\_\_\_?  
 Begiradaz ta kritika hutsez  
 betez taberna izkinak  
 marra gorria bai pasatu dut  
 diosta egi \_\_\_\_\_  
 beti kolpetan konponduz gero  
 gure \_\_\_\_\_ ta ezinak  
 bakoitza bere alboan baina  
 ez gara hain \_\_\_\_\_.

A	T	O	H	A	P	U	S	K	U	K	J	E	O	R
S	N	A	F	P	T	L	H	L	A	U	P	M	J	B
H	T	B	M	J	X	N	Z	N	F	H	U	G	J	K
D	L	G	A	F	F	A	I	S	P	M	F	L	P	A
A	M	P	R	G	R	D	E	J	K	T	H	I	O	O
M	D	M	R	X	R	A	T	B	D	K	P	G	J	P
B	B	B	A	E	G	I	X	E	U	L	A	X	D	K
G	E	E	B	I	R	M	N	Z	J	R	U	N	A	A
G	Z	S	R	M	A	L	X	A	T	X	R	N	K	T
I	E	M	T	O	T	U	L	Z	K	L	I	U	M	N
D	K	J	X	E	T	O	P	E	D	D	H	L	K	E
D	X	U	R	A	I	U	N	J	R	I	P	O	G	A
A	S	S	R	E	J	G	T	O	O	G	F	R	F	O
M	O	K	D	R	H	E	G	A	O	E	O	T	P	K
S	A	M	I	N	A	K	U	Z	U	R	R	U	T	A
N	A	H	I	A	K	K	U	S	E	J	X	U	B	E

# Sudokua

ERRAZA

			1	3		9		
	5	8		7			3	
9		1		2			8	7
	4	6		1		8		
7	1	5		8	6			4
			5	4		7	1	6
	6	9		5			4	
	2	7		6	1			3
	8	3	2	9	4	6		1

ZAILA

			5	7		2			1	
3							8	9	7	
			7							
	3			2	6					
1		8	5	9			7	2		
						4				
	1						6		3	8
8										5
			3							2

# Gurutzegrama

	1	2	3	4	5	6	7	8	9
1					■				
2								■	
3				■					
4								■	
5			■						
6						■			
7		■							
8					■				



handiak sortzen dituen ibaiak. **7.** Iparraldeko biztanle. **8.** Seme edo alaba bat edo gehiago dituen gizona. / Herri handi.

### GOITIK BEHERA:

1. Atunaren arrantza.
2. Hestebete mota.
3. Ur izoztu. / Informazio unitate.
4. ... hoc, latinezko lokuzioa. / Fasea.
5. Esaldi, perpaus. / Karratu. / Rhesus faktorea.
7. Unnilhexioaren ikurra. / Lo asko egiten duena.
8. Liskar.
9. Urriki.

### EZKER-ESKUIN:

1. Gogobetea. / Pozoi.
2. "... doanak ez du pixarik bakarrik egiten".
3. Otoaren oihiu. / Sutsu.
4. Bareak, lasaiaik. / Zu.
5. Kilometro. / Teilatuaren piezak.
6. Argazkiko herria. / Oiz mendian jaio eta Gernika inguruan itsasadar bihurtu eta padura

### EBAZPENAK

Ostegun gaua **beste** behin Bilbon/pinxo-poteak lotuta/kuadrillarekin barra ertzera/ta lehen **tragooa** lortuta/harrotuz noa musikak eta/gau giroak **berotuta**/jendarte batek moztu du baina/lagun arteko **zurrua**/euren bota beltz, buru rapatu/eta militarren looka/ agertu dira "Muerte a los vascos!"/ta "Viva España!" **oihuka**/bati muturra berotu diot/ta hor hasi da **burruka**/odol artean irri egin dit/nahi zuena **lortu** du ta./Kendu dituzte preso **ikurrak**/ta ondoko ikurrinak/nik **marra** hori pasatu nezan/ze nolako ahaleginak/eta amua irentsi dut ta/hartu berri nau **saminak**/zerk mugitu nau injustiziak/edo biolentzi **gordinak**/Begiradaz ta kritika hutsez/betez taberna izkinak/marra gorria bai pasatu dit/diosta egi **gordinak**/beti kolpetan konponduz gero/gure **nahiak** ta ezinak/bakoitza bere alboan baina/ez gara hain **desberdinak**

9	5	3	4	7	6	8	1	2
8	4	6	3	2	1	6	7	5
7	1	2	9	8	5	4	3	6
6	3	7	8	1	4	5	6	3
5	1	6	8	5	9	7	2	4
4	8	7	1	3	9	2	5	6
3	4	8	7	1	3	9	2	5
2	7	4	1	3	8	9	6	5

ZAILA

5	8	3	2	9	4	6	7	1
4	2	7	8	6	1	5	9	3
1	6	9	3	5	7	2	4	8
8	9	2	5	4	3	7	1	6
7	1	5	9	8	6	3	2	4
3	4	6	7	1	2	8	5	9
9	3	1	6	2	5	4	8	7
6	5	8	4	7	9	1	3	2
2	7	4	1	3	8	9	6	5

ERRAZA

A	H	A	L	A	U	S	E	J	X	U	B	E			
S	A	M	I	N	A	K	U	Z	U	R	R	U	T	A	
O	S	T	E	G	U	N	A	G	A	O	E	O	T	P	K
A	S	S	R	E	J	G	T	O	O	G	F	R	F	O	
D	X	U	R	A	I	U	N	J	R	I	P	O	G	A	
D	K	J	X	E	T	O	P	E	D	D	H	L	K	E	
G	Z	S	R	M	A	L	X	A	T	X	R	N	K	T	
G	E	E	B	I	R	M	N	Z	J	R	U	N	A	A	
B	B	B	A	E	G	I	X	E	U	L	A	X	D	K	
M	D	M	R	X	R	A	T	B	D	K	P	G	J	P	
A	M	P	R	G	R	D	E	J	K	T	H	I	O	O	
D	L	G	A	F	F	A	I	S	P	M	F	L	P	A	
H	T	B	M	J	X	N	Z	N	F	H	U	G	J	K	
S	N	A	F	P	T	L	H	L	A	U	P	M	J	B	
A	T	O	H	A	P	U	S	K	U	K	J	E	O	R	



# Amatasunaren giltzarik gabe

 AINHOA MARIEZKURRENA ETXABE

**A**matasuna hamaika erpin dituen gai borobila da, ama adina formatan aurkezten zaiguna. Norberaren esperientziak eta haien balizkotasunaz hitz egitea, emakumeak batzeko eta ahalduntzeko gakoa bilakatu da azken urteotan. Euskal antzerkira ere ekarri nahi izan dute ikuspegi hori.

Elena Diaz autore madrildarrak ia bi urte daramatza obra honen gaztelerazko bertsioarekin Espainiako Estatuko aretoak betetzen. Ehun emanaldi baino gehiago egin dituzte jada eta orain Euskal Herrira iritsi da, estreinakoz, Hondarribiara, eta hemen ere aretoa bete da lehen egunean.

Zinemaren edo telebistan hainbatetan erabili den gatazka eredu bat hautatu du egileak lau ama protagonista elkartzeko: eskola bateko itxaron gelan daude, bilera baterako arduraduna noiz iritsiko zain, baina ez da inoiz etorriko. Gelako atea itxita dagoenez, eta ateratzeko giltzarik ez dutenez, beldur eta desirak euren artean elkarbanatzen hasiko dira, terapia moduko batekin ondorio propioak ateratzea lortuta. Inor ez azaltze

hori bada, ustez, amatasunaz hitz egiteko inoren beharrik ez dagoela esateko metafora bat, elkarri lagundu arren, norberarena dela erabakia eta bidea.

Amatasuna eta gaiak dakartzan argilunak jendearen interesekoak direla antzeman da antzokian. Irribarre konplizeak hasieratik nabari ziren publiko artetik. Lau protagonisten izaera zeharo desberdinek eta, era berean, prototipoek, hartzaila identifikatua sentitzea ekarri dute, eta horrek beti eragiten du barregura: lanez gainezka egon eta haurrentzat denborarik ez duen emakumea; ekoama, naturaz, lasaitasunaz eta ekologismoaz baliatzen dena haurraren heziketarako; ama ez den emakumea; eta haurdun dagoena, hau da, zalantzaz eta mamuz beteta dagoen gaztea.

Pertsonaiez gain, lanak baditu beste hamaika kolore. Hitzek eta gertaerek dakartzatzen ñabardurez aparte, soinean eta eszenan daramatzatenek hartzen dute protagonismoa. Tonu alaiak, baikorra eta koloreen unibertsoa bezain handia den gai bati heltzeko nahia adierazten dute antzezlanean darabiltzaten

## AMAK

**KONPAINIA:** Txalo teatroa.

**SORTZAILEA:** Elena Diaz.

**ZUZENDARITZA:** Begoña Bilbao.

**AKTOREAK:** Intza Alkain, Tania Fornieles, Oihana Maritorea eta Iraitz Lizarraga.

**NOIZ:** urtarrilaren 10ean.

**NON:** Itsas Etxea auditoriumean (Hondarribia).

kolore biziak. Nire gustura, komertzialgia den zerbaitera hurbiltzen da erabakia, bai eta estimulo gehiegi dituen errealitate batera ere, POP estilora. Bizipairu dantza ere sartu dituzte. Antzezlanaren egitura baina, hor kokatzen dute, hasieratik baita dena oso exajeratua. Horrela, pertsonaien garapenak ez dira sakonak eta errealak, ohikoak eta hutsalak baizik.

Umeekin edo gabe, hantxe elkartu dira ama hauek, komunean ugaltzatua baino ez dutelarik. Giltzarik gabe gelditu dira, baina irteterakoan giltza bana aurkituko dute: bakoitzak bere atearena. ●



## LIBURUA

# Mutu



## MIGRANTEAK

ISSA WATANABE

1545 ARGITALETXEA, 2024

**AINHOA ALDAZABAL GALLASTEGUI**

**E**zagutzen ez nuen 1545 argitaletxeak 2024an itzuli eta kaleratu du Issa Watanaberen *Migranteak* liburua. Animalia talde batek egiten duen migrazio prozesua kontatzen du; eta bidaia horrek duen alde garratzena erakusten digu hasiera hasieratik: heriotzaren gertutasuna. Esperientziak pertsonaia talde horretan eragiten dituen ondorio psikologiko, emozional eta kolektiboak ere erakusten dizkigu: mina, beldurra, ezinegona eta abarrak. Gaur egun Ulisesen sindrome gisa ezagutzen dugun hori oso ondo islatzen du liburua.

Ama ilustratzailea eta aita poeta duen egile honek bietatik edan duen artista dela argi utzi digu proposamen honekin. Ez dizuet orain arte ezer esan, baina liburua mutua da eta ilustrazioek dute narrazioaren karga osoa. Nola da posible aurreko paragrafoan esandako

guztia irudiekin soilik adieraztea? Bada, ez da hori bakarrik: ilustrazioek duten estiloa erabat poetikoa da. Liluragarria, harrigarria, sakona. Hitzik gabe uzten zaituen liburu mutua.

Orrialdeen atzealde beltzarekin asmatu egin du egileak. Landuko duen gaiaren seriotasuna adierazten digu alde batetik. Bestetik, atzealde beltzarekin lan egiteak dituen zailtasunak sumatu ditzakegu, eta, beraz, egileak teknikoki duen abilezia ondorioztatu. Orrialde bakoitzean pertsonaiak antolatzeke duen moduarekin batera orrialdeen konposizioa berezia eta originala da: norantz eta nori begiratu ondo pentsatuta dago.

Kasu batzuetan ezker-eskuin banatu ditu pertsonaiak, oreka eta armonia lagun. Beste batzuetan pertsonaiak alde batean ezarri ditu alboko orrialdea ia osorik beltzean utzita. Beltzasun hori

eskuinean egon den kasuan migrante taldeak ezezagunari dion beldurra eta mesfidantza ikusiko ditugu. Ezkerrean geratu denean atzean utzitakoak sortu dien samina erakusten digu. Adibide bi jartzearen.

Motza bada ere kontatuko ez dizkizuedan hainbat momentu goren ditu liburua. Borobila da *Migranteak*. Baso ilun batean sartzen den migrante taldeak gorriak ikusi eta gero esperantzarako eta itxaropenerako ere lekua aurkitzen duelako. Edo esperantzari eta itxaropenari lekua egiten diotelako.

Imaginatzen zaila da letra artean bizi den honentzat hitzik gabeko liburu batek horrenbeste ñabardura, sentsazio, informazio eta sentimendu adieraz ditzakeenik. Baina hala da, ez bairik gabe. Erantzunak bilatuko ditugu eta galderak aurkituko ditugu behin eta berriz irakurri nahiko dugun liburu honetan. ●



MUSIKA

## Olaia Inziarte, edo esateko asko duenak asko esaten du (eta eskerrak)

XALBA RAMIREZ

**D**epresio garaian idatzitako hamalau kanta. Halaxe aurkeztu zuen Olaia Inziartek orain aipatu ezin den euskarazko lehenengo *late night*-ean. Diskoa irekitzen du *Zerrautsa* pieza bru-ta-lak. Jazz piano bat eta motozerra bat atzetik. Kendrick Lamarren *To Pimp a Butterfly* gogoan. Bere izenarekin identifikatzen ez den Olaia ohartzetik ezin jaiki. Antsietatea, arrakastaren ajea, dolua, gaixotasun mentalak, lagunen minak eta ezinak...

Asko, baina asko-asko, du esateko Olaiak pasatakoak pasata: “Ezin dut nire mobida kontatu zerbait izugarria balitz bezala, humanoa den deus ere etzaidalako izugarriegia iruditzen eta, gainera: erresistentzia gehiegi ditut”.

“Inziarteren kanta guztiak dira sinesgarriak, eta hori da kanta bati eska dakioken behinena”, idatzi nuen azken

diskoarekin. Hemen, sinesgarriak ez ezik, tripak erretzeko modukoak dira esaldi bat bai eta bestea ere bai. Eskertzekoa da hain gutxi esaten den garaiotan.

Gehiago bilduko nituzke, baina espazioak hau ematen du: “Zenbat zordut honengatik? Pagatzen nabil. Zure aldarea okupatzeagatik, pagatzen nabil”. “Urrun sentitzen naiz gizakiek egiten dituzten gauza gehiegirengandik. Iru-ditzen zait direla izaki pila bat eskapo. Baina nola ez da izanen normala eta zilegi”. “Kazetariak ez dira zure lagunak”. “Okertu egin zait bizkarra aurkeztu naizelako beti txikia”. “Garaikidea da egiten duzuna baina ez du iraunen”. “Aurikularrekin mendira, desorekatuak gaude-ta. Pentsatzen zenbateraino den zilegi artearen izenean metaforizatzea dena, dena, dena” —eta nik hemen Chill Mafiari keinua ikusten diot—.



### ZERRAUTSA

OLAIA INZIARTE

PANDA, 2024



Olaia bere burua sendatzeaz dabil, baina badabil ere sormenak terapia baina pixka bat gehiagorako balio dezakeela aldarrikatzen: “Mintzatuko naiz gero edertasunaz ere, baina hase-re hauek okupatu behar dute okupatu beharrekoa”.

Amets Arangurenen audio bat dago erdian, eta ez alferrik: “Ondo legoke jakitea zein materialekin eraiki zenuen garai hartatik hona ekarri zaituen harria”. Indiferentzia, apatia, esperantza edo insistentzia aipatzen ditu. Zeren, “hainbeste zalantzaren artean, tarteka, erantzunak izatea ere komeni da”.

Olaia Inziartek kantatuko du batzuetan bere azken kanta balitz bezala. Baina ez da izango. Asmatuko duelako sendatzen eta sendabidea eskaintzen; eta bere izenarekin berradiskidetzen. ●

# David Lynch antidoto gisa

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

**U**dazkeneko egun batez gertatu zela esan zuen, iluntzean, nahiko berandu. Normalean, ordu hartan, aita atarira aterako zen eta oihu egingo zien, John, David; eta hori izango zen seinalea, etxera bueltatzeko ordua.

Baina gau hartan, ez zekien zergatik, oihu hori entzuteko ordua izan arren, han zebiltzan, auskalo zertan, hura agertu zitzairenean, Shoshone Avenue gurutzatuz, ilunpeen bihotzetik, amets arraro batean bezala.

Ez zuen lehenago inoiz emakume heldurik biluzik ikusi. Emakume hura, haren azal zuri eder zurbila, larrubizirik kalean.

Iruditu zitzaion ahotik odoletan ari zela. Modu estrainio samarrean etorri zitzairen, ibilera baldar harekin zeharkatu zuen Shoshone Avenue eta Park Circle Driveraino iritsi zen. Pentsatu zuen, horrela kontatu zuen, erraldoi bat zetorrela pauso astunez beraiengana. Gertu. Gertuago. Gertuago. Gertuago.

Bere anaia negarrez hasi zen. Zerbait ez zegoen batere ondo emakume harekin. Ez zekien, ez zuen gogoratzen zer gertatu zen gero baina, agian, bai, hori da, agian emakume hura, beste mundu batetik aterea, espaloian eseri zen, negarrez.

Lagundu nahi izan zion, zer edo zer egin nahi zuen emakume haren alde. Baina txikiegia zen. Ez zekien. Ezin zuen. Ez zuen gogoan gero zer pasa zen.

Garai hartako bere bizitzaz hitz egiten zuenean, esaten zuen instituturira iritsi arte bere mundua ez zela izan bi etxebizitza-bloke baino askoz handiagoa. Unibertso osoak ezkuta daitezke misterio handirik gabekoak diruditen bi etxe ziztrinen zokoetan.

David Lynch hil da, entzungo zenuen noski. Duela urte batzuk eskaini zioten dokumental batean kontatu zuen ume garaiko pasadizo horretaz akordatu naiz. Izan zitekeen bere film bateko eszena. Horixe izan baita unibertso



lynchtarraren gauzetako bat: ohikoaren ezohikoa, distantzia batetik begiratzen den errealitate barean agertzen den simbolizatu ezinezko Erreal lacandarra.

Ebakitako belarri bat belarretan. Estralurtarra dirudien haurraren aurpegiko pikorrak. Atrakatzaillearen buruaren, pum, azken hegaldia. Laura Palmerren garrasia gortina gorridun gelan. *No hay banda*. Zizare erraldoien aho-sabai iletsuak.

Eta surrealizatatzat hartu izan da, fantastikotzat, onirikotzat. Horrelako adjektiboek zerbait esplikatuko balute bezala. Lynchen obra esplikatzerik balego bezala. Esplikatzeko inolako premiarik balego bezala.

Baina, ai, ziurtasunak behar. Zeri buruzkoa da pelikula? Zein da transmititu nahi duen mezua? Nire edertasun ideologikoarentzat ispilu egokia al da?

Gauzak sinpleagoak eta,aldi berean, konplikatuagoak izan ohi dira. Haurra zara, zure anaiarekin zabilta gauez, etxetik pixka bat urrunduta; eta ibilera


arraroko emakume bat ikusten duzu zuengana datorrela, biluzik, odoletan. Mundua, ordura arte bi etxe-blokeren inguruan gertatzen zen gauza seguru hori, handiegia eta arriskutsua bihurtzen zaizu bat-batean. Ez zaude prest horri aurre egiteko. Nola edo hala pasatzen denean, ez dakizu zer egin gertatu denarekin.

Zerbait oso berezia eduki behar da material horiekin fikzioa sortzeko. 50 urtean behin bakarrik agertzen da norbait hori daukana –Lynch baino lehen Kafka izan zen–. Zeren normalena, kabitzten ez zaizkigun sentsazio horiei esplikazio errazak ematea izaten da. Hortik bizi dira gaur egun hamaika aho-handi, ordena arrakalatzten duen edozer –ez du derrigor ezer subertsiboa izan behar–, kaxoietan gordetzetik, izendatuta, pisatuta eta prezioa jarrita.

Guzti-guzti-guztia kontzeptu estuegietan kaiolatzeko joera daukan garai historiko honentzat, antidoto ona izango da, luzaroan, David Lynchen zinema. ●

Koldo Rabadan Izagirre

# Superbotereak



10 urrats  
eskola  
eraldatze  
bidean

Haur guztiek dute  
superbotereren bat,  
helduok hala ikusi ez arren.  
Erabil behar genituzke  
eskola-proiektua  
diseinatzerakoan.

Liburua **16€**  
+ Bidalketa gastuak



Koldo Rabadan egilearekin  
hitzaldiak antolatzeko:  
[solasaldiak@argia.eus](mailto:solasaldiak@argia.eus)

# Sarean eduki guztiak irekita **zuri esker**

**Herritar guztiei informazioa  
bermatzeko.** Inor bazterrean  
utzi gabe. Dirua ez dadin  
eskubideen gainetik egon.

Lagundu sare  
libreari eusten:

[argia.eus/eginargiakoa](http://argia.eus/eginargiakoa)

 ARGIA

